

Herririk Herri | 4

Atxondoko igerilekuen abonuetarako diru laguntza izango dute elorriarrek



Aisialdia | 15

Kontenedore berdeak ondo zelan erabili azalduko dute Zaldibarren, domekan

Jaiak | Gehigarria
Zaldibarko jaiak



ELORRIO | 8

Inma Berriozabal presoak askatzea eskatu du Herrirak

18/98 auziagatik kartzelan dagoen preso elorriarrek gaixotasun kronikoak ditu

Karmele Berriozabal Inmaren ahizpak presoaren osasunaren berri eman du



Erraldek langileak kaleratu arren, ez da disolbatu

Durangaldea • Erralde hiltegi beharginek aste honetan sinatu dute kontratuaren amaiera. Enpresak 20 eguneko kalte ordaina emango die lan urteko. Erregulazio espedientea amaitzerakoan hartu du enpresak eraba-

kia. Administrazio kontseilua osatzen duten udalek enpresa ez disolbatzea erabaki dute. Proiektuaren alde daude Bilduk gobernatzeko dituen udalak eta Garai. EAJ eta Abadiño Independentistak kontra daude. | 2

KULTURA | 9

"Eman dezake hamar artistaren erakusketa dela"

Peru Magdalena eta Gotzon Garaizabal artistek margokera oso anitzeko lanak ipini dituzte 2d1 izeneko erakusketan, Abadiño lokal batean.



KIROLA | 14

Boxeo ikastaroa eskainiko du Poli Diazek Abadiñon, uztailaren 14an

BERRIZ | 3

Herritarren parte-hartzeagaz IV. Berdintasun Plana martxan

Abadiño | 6

Estankoa dagoen eraikineko jabeari espedientea ireki diote

Otxandio | 3

Langile erdiak kaleratu dituzte Holtzan, tartean lau otxandiar

Mallabia | 7

Plazatik Mallabarrenarako bidea autoentzako itxi egin du udalak

Durango | 2

Denden informazioa telefonoan jasotzeko aplikazioa sortu dute

MATRIKULA OFIZIALA 2012-13

EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA, ALEMANA

1. FASEA. Epea: **uztailaren 2tik 12ra**, biak barne. Modua: Internetez bakarrik, web orrian.


Data garrantzitsuak:

- Uztailaren 17an: onartuen behin-behineko zerrenda.
- Uztailaren 26an: onartuen behin betiko zerrenda. Ez onartuak zuzenean 2. fasean sartuko dira.
- Uztailaren 27tik irailaren 14ra, 15:00ak arte **ordaintzeko epea**. Irailaren 10etik 20ra irailan gaingidutakoan maila aldatuta eta grazia deialdia.

2. FASEA. Uztailaren **13tik irailaren 27ra epez kanpoko eskariak**, Internetez web orrian.

Data garrantzitsuak:

- Urriaren 2an: plazen banaketa hurrenkera honetan: 1. faseko ez onartuak, grazia deialdiak eta epez kanpoko eskariak.
- Urriaren 2tik 6ra, 15:00ak arte **ordaintzeko epea**.



Hizkuntza Eskola Ofiziala Escuela Oficial de Idiomas

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

3. FASEA. Urriaren **9tik 24ra** geratzen diren plazak banatuko dira.

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

Beharginak kalera bota arren Erralde ez da disolbatu

Boto bakar bateko aldeagaz, abere hiltegiaren proiektuagaz aurrera egitea erabaki dute udalek

Erraldeko beharginek aste honetan sinatu dute kontratuaren amaiera, eta hogeit eguneko kalte-ordaina emango die enpresak. Lan erregulazio espedienteagaz egon dira hiltegia zarratu zenetik. Beharginen ordezkari Juanjo Elgezabalek dioenez, lanean jarraipena izateko ilusioa sortu zieten, baina ilusioa zapuztu zaie: "Hiltegi berria egingo dutela agintzen dizute, eta bost urtera ez dago hiltegirik ezta beste ezer ere". Alderdi politikoen jarreraz ere berba egin du: "Guztia politika da. Guk ez dakigu zer pasatzen dabilen honetan guztian".

Bestalde, Erralderen proiektuagaz aurrera egitea erabaki zuten udalek joan zen asteko batzarrean.

Hamabost udalerritik zortzik babestu zuten jarraitzeko aukera. Bilduk gobernatzen dituen udalek eta Garaikoak irabazi zuten bozketa, EAJk kudeatzen dituenen eta Abadiñoakoaren aurrean. Aulestiko alkate Mikel Ansotegi (Bildu) da Erraldeko presidentea, eta adierazi du Berrizko hiltegi berrian zentratuko direla. "Lehenengo sektorea egoera gaxtean dago Bizkaian, eta administrazioaren egin-beharra da honegaz aurrera egitea". Sektorearen inguruko proiektu zabalago bat martxan ipintzeko udalen eta administrazioen laguntza eskatuko dute.

Erralde desegitearen aldeko taldean dago Jose Luis Navarro Abadiñoako alkatea. Elkarteak porrot



Azken hilabeteetan protesta ugari eragin du Erralderen itxierak.

Abadiñoako alkateak elkarteak porrot egoeran dagoela eta disolbatu behar dela dio

ekonomikoan dagoela eta egoera horretan elkarteak disolbatu behar dela dio. "Elkarteko udalen egoera ikusita, uste dugu ez dela jasangarria egitasmo honegaz segitzea". Ekarpen berriez ezkor agertu da:

"Dirua ipintzera etorri gura izan duenak eduki du denbora; ez da etorri eta uste dugu ez dela etorriko". Navarrok dio proiektuaren alde daudela, baina diru barik ezinezkoa dela. ■ M.Onaindia

Denden informazioa telefonoan edukitzeko aplikazioa sortu dute

Smartphone-etan instalatu eta erabili ahal izango da eta, adibidez, ordutegien berri emango du

Merkatarien eta erosleen arteko kanal berri bat sortu du +Dendak elkarteak. Smartphone ereduko telefono mugikorretarako aplikazio bat. Durangarrek zein kanpotik datozenek, komertzioen gaineko informazio eguneratua edukiko dute eskura. Esaterako, denda edo tabernen ordutegia ikusi ahal izango dute. Eskaintzak, telefonoa eta helbidea ere agertuko dira aplikazioan.

Arrasateko Skura Mobile enpresak sortu du aplikazioa. Diotenez, erabiltzeko arina eta erraza da. Bilatzailea eta Durangoko mapa bat gehitu dizkiote. Mapak, non dagoen esango dio erabiltzaileari. Adibidez, okindegira joan gura duenak, dagoen lekutik hurbilen zein dagoen ikusi ahal du. Android eta Blackberry sistemako telefonoekin erabili ahal da, eta laster Iphone-etan ere bai. ■ M.O.



+Dendak eta Skura Mobileko arduradunak, prentsaurrekoan.

Perura eroan dute Gabriela Arosemena zenaren gorpua

Lagunek lortu dute dirua; Juan de Iciar auzoko etxe bateko leihotik jausita hil zen Arosemena

Gabriela Arosemenaren gorpua Perura eroan dute dagoeneko. Bere lagunek lortu dute beharrezkoa zen dirua: 4.500 euro inguru. Arosemena maiatzaren 5ean hil zen, Juan de Iciar auzoko etxe

Gorpua aberriratzeko, dirua lortzeko kanpaina egin dute lagun eta senideek

Joan zen barikuan zabaldu zuten ofizialki Tabira auzoko jolasgune berria. Bi eremutan banatu dute, udal arduradunek azaldu dutenez. Bata, bi eta sei urte arteko umeei zuzenduta dago, eta hor egokitu dituzte joku konbinatua, jolasgune eta eskalatzeko blokeak daude.

2010ean EAJk eta Aralarrek aurrekontuen inguruan egindako akordio baten ondorioz eraiki dute jolasgunea, Aralarrek prentsa ohar bidez adierazi duenez. Egitasmo hau umeen eta gazteen egoera hobetzeko asmoz garatu dela dio Aralarrek, eta uste du udalak lan horretan jarraitu behar duela aurrerantzean. Poza agertu du, "jolas-gunea aurrerapausua delako eta aldarrikapena egi bihurtu delako". ■ M.O.

bateko leihotik jausita. Bere heriotzaren zergatia ikertzeko eskatu zuten senide eta lagunek orduan. Pertsona bat atxilotu zuen Ertzaintzak, 23 urteko emakumea etxean erretenituta eduki zuelakoan. Libre utzi zuten gero. Ostean, Ertzaintzak adierazi zuen ikerketan baztertu egin zutela hilketaren hipotesia.

Gorpua aberriratu ahal izateko, dirua lortzeko kanpaina egin dute lagun eta senideek. Esaterako, Munduko Arrozak jaialdian egin zuten bilketa. ■ M.O.

Umeentzako jolasgune berria zabaldu dute Tabiran

Bi eremutan banatu dute; bi eta sei urte arteko umeena, eta sei eta hamabost urte artekoena



Hainbat ume, eguaztenean, Tabirako jolasgune berrian.



BERRIZ

Parte hartzeko aukerak bermatu gura ditu IV. Berdintasun Planak

Lau urtetarako helburuak finkatu dituzte herritarrekin egindako saioetan

Atzo aurkeztu zuten IV. Berdintasun Plana Berrizen. Orland Isoird alkateak eta Maitane Mardaras Berdintasun teknikariak eman zuten planaren berri. Planaherritarren parte-hartze saioekin eratu dute, eta azaldu dutenez, "gakoa udalaren arlo denetan parte hartzeko aukerak ematea da".

Datozen lau urteetan lau helburutan lan egitea zehaztu dute:

emakume eta gizonen berdintasunerako gobernantza; emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa; gizarte antolakuntza erantzunkidea, eta emakumeen aurkako indarkeria.

Herritarren ekarpenen artean, jaietan andren presentzia ikusarazteko premia egon dela azaldu dute aurkezpenean. Planeko lehen ekintza batzuk aintzatzeko ikastaroa eta udal langileentzako gene-

ro ikuspegiaren gaineko formazioa izango dira.

Aurreko planean ere udalak arlo guztietan berdintasuna bultzatzeko aukerak eskaini zituen. Mardarasek adibide bat eman du: "Kiroldegian goizetan ohikoak ez diren orduetan ikastaroak ematen ditu umeak eskolan utzita joaten diren gurasoentzako. Bestela, ez lukete kiroltik egiteko aukerarik izango". ■ A.Ugalde



Isoird eta Mardaras atzo udaletxean planaren inguruko prentsaurrekoan.

OTXANDIO

Autoak dendan ordutegian sartu ahalko dira Mainerrotara

Mainerrota auzoan auto trafikoa mugatuko dute. Sarreran piboteak ipiniko dituzte, datorren astean; baina irailera arte ez dira martxan egongo. Guztira, 45 herritar batu ziren joan zen eguazteneko herri batzarrean, eta autoentzako sarrera ordutegia eztabaidatu zuten.

Aste barruan 20:00etatik aurrera mugatzearen aukera hobetsi zuten herritarrek

Udalak mahai gainean ipinitako aukeren artean, honakoak jaso zituen puntu gehien: sarrera aste barruan 20:00etatik aurrera eta zapatuetan eguerditik aurrera mugatzearen aukera hobetsi zuten herritarrek; baita domeketan eta jai-egunetan egun osoz mugatzea ere. Astegunetan eta zapatuetan egun osoan ixteko aukerak, aldiz, puntuazio baxua jaso zuen. Peio Otxandiano zinegotziaren esanetan, "egun osoz itxita, komertzioei kalte egingo zaiela uste dute". Udalak aintzat hartuko ditu iritziak eta irailera bitartean informazioa helaraziko diete herritarrei. ■ J.D.

Langileen erdia kaleratu dute Holtzan, tartean lau otxandiar

Legutioko (Araba) industriaguneko Holtza enpresak erdira jaitsi du langile kopurua: 78 langile ziren eta orain 38 dira. Gainerakoak kaleratu egin dituzte eta lau otxandiar daude euren artean. Fogasak 20 egun ordainduko dizkie lan urte bakoitzeko eta enpresak beste 13. Beraz, guztira, 33 egun lan urte bakoitzeko. Datozen hiru urteetan enpresak langileak behar baditu, kaleratuek izango dute lehentasuna.

LABek kaleratze boluntarioen bidea proposatu zuen, baina bost langilek bakarrik eman zuten izena. Ondorioz, enpresak kaleratze bidea hartuko zuela esan zuen. LABek langileekin batzarra egin eta bide bi proposatu zituen: mobilizazioak egitea edo enpresaren erabakia onartzea. Batutako langileen gehiengoak (54tik 48k) enpresaren erabakia onartzearen alde bozkatu zuten: "Langileak etsita zeuden eta egoera hau amaitzea nahi zuten", azaldu du Iñaki Ortiz da Zarate LABeko kideak.

Batzarraren ostean, LABek enpresako zuzendaritzari jakinarazi zion langileen bozketa, baina sindikatuak ez zuen erabaki hori sinatu. ■ J.D.

Lanerako gertu!

2012
2013

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula
uztailaren 5etik aurrera

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

| OÑATI GESTIO HEZIKETA | MGEP |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa | <ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrial • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa • Mekatronika Industrial |
| <p style="text-align: center;">www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p> | <p style="text-align: center;">www.mondragon.edu/gmh gmhz.mgep@mondragon.edu 943 71 21 91</p> |

DURANGALDEA

Atxondoko igerilekuetarako diru laguntza izango dute elorriarrek

Garestiagooa da tarifa kanpokoentzako; Elorrioko Udalak ordainduko du aldea

Atxondoko igerilekuen mantenua amankomunean egin dezaketen eztabaidatzeko batzarretan ez dute adostasunik lortu Atxondoko eta Elorrioko gobernu taldeek. Horren ordez, Elorrioko gobernu taldeak erabiltzaile elorriarrei diru-laguntza zuzena ematea erabaki du. Hau da, herri bien arteko tarifetan dagoen aldea ordainduko du.

Diru-laguntza horietako oinarriak prest daude eta ahalik arinen onartuko dituzte. Hala ere, dagoe-

neko bonoa egin duten elorriarrek udalera joan daitezke eskaera egin eta tramiteak martxan ipintzera.

Gainera, Elorrioko alkate Ana Otadui igerileku propioen aurrekari aipatu du: "Ez diogu uko egingo Elorrio kanpoko igerileku berrien proiektuari; azterketa egiten jarraituko dugu". Atxondoko alkateorde Juanjo Norak, ordea, negoziatziorako "borondate falta" kritikatu du: "Hartu duten neurria hartzeko eskubide legitimoa dute, baina gaia eztabaidatzeko eta akor-

dio batera heltzeko borondate minimoa erakutsi dute".

Defizita, atxondarrek

Igerilekuko erabiltzaileen bonoetan izandako igoerek eragindako kexei erantzun die Norak: "Iaz 53.000 eurokoa izan zen defizita. Prezioak igo ditugu eta Atxondotik kanpoko egehiago. Baina kontuan hartu defizitari atxondarrek bakarrik egiten dietela aurre zergen bidez, erabiltzaileak hainbat herritakoak izan arren". ■ J.D.



Astelehen honetan ireki dituzte Atxondoko igerilekuak.

IURRETA

Olaburu kalea konpondu eta bidegorria egokituko dute

Larrakozelaiko entrenamenduak eta ikasturte berria hasten direnerako prest izan gura dute

Olaburu kaleko bidezorua saneatu eta atonduko du udalak, gero bidegorria egokitzeko. Argiak ere jarriko dituzte, kanalizazio lanak amaitu ostean. Frontoi alboko biribilgunetik A-8 autobidearen goi-

PSE-EEK ere, lan hauek 2012ko aurrekontuagaz egiteko eskatu zuen

ko oinezko zubira doa bidea, eta obrarako 58.033 euro erabiliko dituzte. Bidea kaltetuta dago eta asko erabiltzen da, ikastetxeetara eta futbol zelaira joateko.

Datorren astean hasi eta hiru astean amaitu gura dituzte lanak; argiteria abuztuan jarriko dute. Ikasturtea eta Larrakozelaiko entrenamenduak hasi orduko erabiltzeko moduan izatea da asmoa. PSE-EEK ere, 2012ko aurrekontuagaz lan hauek egiteko eskatu zuen, Iñaki Totorikaguena alkateak jakinarazi duenez. ■ A. B.

ATXONDO

Oraindik udalak jarraitzen du ambulatorioa ordaintzen

Osakidetza eta obren egilea ez dira ados ipintzen; udalari 16.000 euro kostatzen zaio mantentzea

Udalak Jauraritzaren Osasun sailari utziko dio Atxondoko osasun zentro berriaren kudeaketa. Horrela, mantenu kostuez libratuko litzateke, urtero 16.000 euro inguruko kostua duena: argia,

"Epe laburrean arazo horiek amaitzea eta lagapena egitea itxaroten dugu"

gas, garbiketa... Baina Osasun sailak eta obrak burutu zituen enpresak desadostasun burokratikoak dituztenez, osasun zentroaren lagapena atzeratzen ari da.

Juanjo Nora alkateordeak badu esperantza: "Epe laburrean arazo horiek amaitzea eta lagapena egitea itxaroten dugu". Obrak egin zituen enpresak hasieran zuen aurrekontua ez dator bat lanen osteko egiaztapen agiritan dakarren diru kopuruagaz. Aurreikusitakoa baino gutxiago balio izan dute lanek. Osasun saila zer gertatu den aztertzen dabil.

Osasun zentro berria maiztzean zabaldu zuten. Lanek 135.000 euroko kostua izan zuten eta Jauraritzak bere gain hartu zituen. Obra-proiektua udalak egin zuen eta Osasun sailak lanak ikuskatu zituen. ■ J.D.

Udaletxeko aterpea erabili ezinagatik kexak jaso ditu EAJK

Idatzi baten bidez Atxondoko EAJK jakinarazi duenez, azken aldian herritarren hainbat kexa jaso dituzte udaletxeko aterpea ezin delako erabili. Jeltzaleen esanetan, udaletxeko aterpea da herriko aterpe bakarra eta gaur egun andamioz inguratuta dago, udaletxeko teilatuan egiten dabil-

tzan lanen ondorioz: "Udalak esleitutako lanak prestutasunez aurrera eramango direla espero dugu eta lanetarako aurrekontua aurreikusitako kopuruari egokitu zaiola. Aterpea ahalik arinen erabilgarri egotea desio dugu".

Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiari eskertu diote teilatua eraberritzeko eman duen diru-laguntza, bestela ezingo zirelako lanak burutu. Atxondoko gobernu taldeak (Bildu) erantzun du esanez beste herriek jasotzen duten modu berean jaso duela laguntza Atxondok, eskatu zitezkeen laguntzak zirela. ■ J.D.

Kirol bekekin, udalak bereziki emakumeak lagunduko ditu

Herriko kirol elkarteak eta banakako kirolariak diruz laguntzeko helburuagaz, bekak eskatzeko epea zabaldu du udalak. Bereziki, emakumearen parte-hartzea lagunduko dute. Kirol taldeen kasuan, besteren artean, proiektu-

tuaren interes publikoa eta egokitasuna ere kontuan hartuko dituzte. Guztira, kirol elkarten artean 2.750 euro banatuko ditu udalak.

Banakako kirolariaren beka deialdirako, berriz, 1.300 euro daude. Baldintzak betez gero, gehienez 200 euro jaso dezake bakoitzak; eskatzailea emakumea bada, %50 gehiago. Urriaren 11ra arte aurkeztu ahal dira eskaerak. Eskari-orriak www.iurreta.net webgunean edo Erregistro Orokorrean lortu ahal dira. ■ A.B.

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODÓLOGO 188. Elkargokidea

Goiuria auzoa 16 - 48215 lurreta (Bizkaia) Tel.: 94 681 08 86

www.asadorgoiuria.com

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK ...

2 pertsonentzako MENUAK zozketatuko ditugu
Bidali zure datuak:
anboto@anboto.org edo
Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta

Jatetxe gida



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zopatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokiellorrio www.batzokiellorrio.com



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

ABADIÑO

Estankoa dagoen eraikinaren jabeari espedientea ireki diote

Otsailean eskatu zion udalak jabeari segurtasunagaz lotutako obrak egitea



Zelaietako estanko-etxearen antzeko eraikinak "babestu egin beharko lirateke", Bilduren ustez.

Zelaietako estankoaren eraikina erortzeko zorian dagoela deklaratzeko baldintzak ez dira betetzen. Horrela azaldu zuen Jose Luis Navarro alkateak ekaineko udalbatzarrean, Bilduren galderei erantzunez. Baina, urte hasieran, udalak jabeari obrak egiteko agindu zion, bertatik pasatzen diren herritarren segurtasunerako neurriak hartzeko: begiratokia apuntalatzeta eta teilatua konpontzea.

Urte hasieratik hona ezelako aurrerapausurik eman ez izana gobernuari leporatu dio Bilduk

Obrak urgentziaz egiteko agindu zuen orain bost hilabete udalak, baina jabeak lan horiek burutzeko tramitazioari ere ez dio oraindik ekin. Udalak emandako agindua bete ez duenez, jabeari zigor espedientea zabaldu diotela baieztatu du alkateak.

Eraikinaren egoerari dagokionez, urte hasieratik hona eze-

lako aurrerapausurik eman ez izana udal gobernuari leporatu dio Bilduk: "Udala baita betearazlea". Galdera bota du Saioa Zuazubizkarrek, Bilduren zinegotziak: "Lau hilabete hauetan zeozer pasatu balitz noren ardura litzake?"

Segurtasunagaz lotutako obra horiek burutzeko epe berria emango dio udalak eraikinaren jabeari. Jabeak obrak hasiko ez balitu, udalak ekingo lieke, eta gero jabeari ordaintzeko eskatu.

Eraikinaren gaur egungo egoeragaz, udala egunero gastua pilatzen dabilela dio Jose Luis Navarro alkateak: udalak ordaindu ditu hartu diren gutxieneko segurtasun neurriak. Hala ere, Navarrok esan duenez, "hau gai teknikoa da eta politikariok ez dugu horretan zertan sartu".

Bilduren ustez, Zelaietako estankoaren antzeko eraikinek, "balio bat daukate herriarentzako eta babestu egin beharko lirateke". Antzeko etxebizitzaren katalogo bat eratzeko beharra ikusten du koalizioak. ■ I.Esteban

Etxeko txikienak eta ezkonduak bedeinkatuko dituzte Urkiolan

Bihar eta etzi egingo dituzte "umeen eta ezkonduen bedeinkapenerako mezak", Urkiolako Santutegian. Bihar, 18:00etako meza saioan, eta etziko meza guztietan bedeinkatuko dituzte bertaratzen diren umeak.

Datorren zapatuan, bestalde, ezkondu eta familien aldeko meza egingo dute, 18:00etatik aurrera: ohitura jarraituz, urrezko eta zilarezko ezteguak ospatzen dituzten bikoteei omenaldia egingo diete meza berezi horretan, eta oroigarriak eskainiko dizkiete parte hartzen duten bikoteei. ■ I.E.

Omenaldia egingo diete urrezko eta zilarezko ezteguak ospatzen dituztenei

Irailerako prest egongo da Traña-Matienan haurreskola

Egoin SA enpresari adjudikatu dizkiote lanak, eta irailaren 15a baino lehen amaituta gura dituzte

Egoin SA enpresak egingo du Traña-Matienako haurreskola berriaren eraikuntza. Enpresak eta udalak adosturiko kontratuaren arabera, lanak 2012ko irailaren 15a baino lehen amaitu behar-

Haurreskola berrian zero eta bi urte arteko 60 umek hasiko dute 2012-2013 ikasturtea

ko dituzte: ikasturtea eraikin berrian abiatuko dute, Jose Luis Navarro alkateak esan duenez. Atzerapenik ez badago, Traña-Matienako haurreskola berrian zero eta bi urte arteko 60 umek hasiko dute 2012-2013 ikasturtea.

Jose Luis Navarro alkateak dioenez, "Traña-Matienako haurreskola berriko eraikuntza lanekin hasiko dira aurrean onartutako aurrekontuetako inbertsioak gauzatzen; herria hobetzen jarraitzeko udalaren konpromisoa erakusten du horrek". ■ I.E.

ELORRIO

21 argazki beste hainbeste dendatan, Eskapararte ekimenean

Erakusketa bereziaren hirugarren edizioa da eta herriko argazkilariak eta merkatariak batzen ditu

Eskapararteren hirugarren edizioa martxan ipini dute. Herriko argazkilariak eta merkatariak elkarlanean batzen dituen ekimena da. Guztira, 21 argazkik apainduko dituzte beste horrenbeste dendatako eskaparateak. Antolatzaileek azaldu dute abuztuaren 31n kenduko dutela erakusketa berezia.

Elorrio Argazki Taldeko kideek eta Elorrioko Merkatarien Elkarteko komertzioek eratu dute Eskapararte. Argazki taldeko Patxi Granadosek adierazi duenez, aurrean hartueman polita sortu da argazkilarien eta dendarien artean. Hori

erakusteko, Granadosek dio argazki batzuetan dendariak eurak agertzen direla.

Herrigunea gune artistiko bihurtuta, argazkigintza herritarrei hurreratu gura diete. "Komertzioa, kultura eta ikusleak batu nahi ditugu". Horrez gainera, Parra tabernan erakusketa kolektiboa zabaldu dute.

Eskapararteren mapa bat banatzen ari dira udal bulego eta komertzioetan

Eskapararteren mapa bat banatzen ari dira udal bulego eta komertzioetan: ekimeneko dendak kokatu dituzte, eta bakoitzean dauden argazkien egileak ere izendatu dituzte. ■ M.Onandia

Herrigunea gune artistiko bihurtuta, argazkigintza heritarrei hurreratu gura diete

Lagunartean ospatu dute elorriarrek Berrio-Otxoa

Santuaren omenaldian egon dira agintariak

Jende ugari batu zen eguaztenezan Berrio-Otxoa Eguneko ospakizunetan. Lagunartean ibiltzeko eguna izan zen. "Aspaldiko Berrio-Otxoa egun onena", zioen batek.

Santuaren omenezko meza nagusian egon ziren, besteak beste, Ana Otadui alkatea eta udal zinegotziak, Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea

eta Josune Ariztondo Kultura diputatua. Arratsaldean Balentin Berrio-Otxoak amari Vietnamdik idatzitako gutunak errezitatu zituzten. Ambrosio Arriola musikari elorriararen piezak eta argazkiak tartekatu zituzten. Iluntzean, abesbatzak pelikuletako soinu-bandak kantatu zituen. Txalo zaparrada jaso zuten.



Txistularien kaljiran heldu ziren agintariak basilikara. J. Ugalde

ZALDIBAR

Plazako dantzen tailerrean izena eman ahalko da irailan berriro

Ekainean hasi zen plazako dantza tailerrean izena emateko epea 2012-2013 ikasturterako. Plazako dantzen tailerrek aurrera egin ahal izateko 25 laguneko gutxieneko taldea osatzea da udalak ipini duen baldintza, eta hamaseik bakarrik eman dute izena araingoz, "oso gutxi", Olaia Arauko kultura zinegotziaren berbetan.

Udalaren gobernu taldeak asmoa du irailan berriro izena emateko deialdia egiteko: "Espero dugu irailan jende gehiagok izena ematea, eta ekimen honek jarraipena izatea".

Patxi Montero irakasleagaz jardun dute plazako dantzak ikasten azken urte bietan, eta irailtik aurrera ere jarraitu gura dute parte-hartzaileek.

Erromerietako dantzak ikasi eta, batez ere, ondo pasatzeko gogoz jarduten dute tailer horretan. Burutu duten aurreko urte bietan, "oso ondo funtzionatu du ikastaroak, eta oso gustura egon da jendea". ■ I.E.

Durungaldean labor

Elorrion azoka ekologikoa antolatu dute domekarako

Durungaldeko Nekazaritza Ekologikoaren 16. Azoka antolatuko dute domekarako, Elorrioko plazako frontoian. Azokako hogeitau postuetan gazta, txakoliña, ogia, barazkiak eta xaboia lako produktuak salduko dituzte. Azokaren helburua ingurumenarekin errespetuz jokatzeko inguruko ekoizleen produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea da. Elorrixa eta Marisatsa elkarteek antolatuko dute azoka.

Liburutegiak kale azokara atera du bere eskaintza

Hamabosterik behin Iurretan egiten duten azokan stand bat ipini zuen atzo Iurretako Herri Bibliotekak. Aldizkariak, egunkariak, ordenagailuak, tabletak, haurrentzako ipuinak... Guneetan banatuta, eskaintza zabala ipini zuten herritarren eskura. Bertaratu zirenek bazkide egiteko aukera ere izan zuten eta liburutegiko ekintzen berri jaso zuten.



Orquestra Rex taldea udako dantzaldietan

Durangoko kioskoan udako dantzaldiak egingo dituzte uztailean eta irailan. Domekan, 19:00etatik 21:00etara, Orquestra Rex taldeak egingo du dantzarako gonbita. Uztailaren 15ean eta 22an, Trio Xandalo eta Duo Marfil taldeak etorriko dira, hurrenez hurren.

GAZTAKO

Miarritzen hasi eta Hondarribian amaituko dute egunpasa

Datorren astelehenerako irteera eratu du Garaiko San Migel jubilatuaren elkarteak. Goizean Miarritze eta Donibane Lohitzune bisitatuko dituzte (Lapurdi), eta handik bueltan Irun eta Hondarribiara ere joango dira (Gipuzkoa). 09:00etan ipini dute irteera ordua.

Goiza Miarritze eta Donibane Lohitzune ezagutzeko aprobe txatuko dute. Ostean, Irunen bazkalduko dutela azaldu dute jubilatuaren elkarteek. Bazkalostean, berriro errepidera irten eta Hondarribiara joango dira. Arratsalde-pasa egingo dute han. Ekintza barik, bakoitza bere airera ibiltzeko aukera edukiko dute. Iluntzean bueltatuko dira Garaira.

Txangora apuntatu gura duenak 22 euro ordaindu beharko ditu. Herriko Tabernan eman ahal da izena. ■ M.O.

MALLABIA

Ezingo da autorik pasatu plazatik Mallabarrenara

Areitiora doazen autoak plaza ingurutik abiadura handiz pasatzen direla dio udalak

Plazatik Mallabarrenarako bidea itxi du Mallabiko Udalak autoentzako. Mila Mondragon alkateak erabakiaren arrazoia azaldu du: "Sarritan Areitiorantz doazen kotxeak abiadura handiz pasatzen dira bide hone-tatik, eta plazan dauden herritar-rak arriskuan jarri". Herriko umei eskola egunak amaitu zaizkiela kontuan hartuta, segurtasun neurritzat hartu du udalak bidea ixte-

Mallabarrenatik plazarako bidean autorik ez pasatzeko, piboteak ipini ditu udalak

ko erabakia: "Umeek oporrak hartu dituztela-eta, plaza inguruan lasaia ibiltzeko aukera eman gura diegu".

Bidea libre

Mallabarrenatik plazarako bidean autorik ez pasatzeko, piboteak ipini ditu udalak. Herritarrei piboteen alboan ez aparkatzeko eskaera egin dute. Autoak aparkatzen badi-tuzte, anbulantziei-eta traba egi-ten dietela gaineratu du Mallabi-ko alkateak: "Bidea libre uzteko eskatzen zaie herritarrei, piboteen atzean ez aparkatzeko. Edo-zein urgentzia gertatuz gero, bidea libre egon behar da bertatik pasat-zeko moduan". ■ J.G.



Mallabarrenatik plazara doan bidea.

MAÑARIA

Jai batzorde berriak egin du andramarietarako egitaraua

Herritarrei laguntza eskatu eta asko prest agertu dira barran txandak egiteko edo garbiketarako

Aurtengo Andra Mari jaietarako egitaraua prestatu dute Mañarian. Jai batzordea berria da, aurten arte enpresa bidez antolatzen ziren-eta jaiak. Udalak bultzatuta sortu dute batzordea, eta joan zen barikuan

Kontzertuen artean, Zea Mays, Antton eta Kupela taldeak programatu dituzte

aurkeztu zieten herritarrei egitaraua. Udaletxeko aretoa bete egin zela esan du Eneritz Areitio batzordeko kideak. Laguntza ere eskatu zieten herritarrei. Barran txandak egiteko edota garbiketarako prest agertu zen jendea. "Jaiak egiteko, laguntza hori ezinbestekoa da".

Egitarauan, orain arte arrakasta eduki duten ekimenak mantendu dituzte. Afari herrikoia eta paella txapelketa daude horien artean. Kontzertuen artean, Zea Mays, Antton eta Kupela taldeak programatu dituzte. ■ M.O.

IZURTZA

Iker Lakaren kartela aukeratu dute herriko jaiak iragartzeko

Kartel bi aurkeztu dituzte Izurtzako jaietako kartel lehiaketara eta Kultura Batzordeak Iker Laka Barandikaren lana aukeratu du. Lakak hamazortzi urte ditu eta eibartarra da, baina familia du Izurtzan. Lakaren kartelean herri-

ko jaiak ospatzen ari diren herritar-erri ageri dira, marrazki batzuen bidez irudikatuta: batzuk dantzan dabilta, besteak edari baten laguntzagaz berbetan...

Maialen Sarasua zinegotziak kartelaren aukeraketa arrazoitu du: "Azken batean herriko jaiak pertsonak dira, ekitaldietan parte hartzen duten lagunak. Hori da jaietako oinarria. Iker Lakaren kartelak ideia hori hobeto adierazten zuela uste dugu eta horregatik aukeratu dugu berak auker-tutako lana". ■ J.D.



Bidebarrieta, 1
48215 IURRETA
Tel. 94 681 10 70
mac@iurretakopi.com

Testu liburuen erosketarekin

% 10

-eko



deskontua

eskola-materialean

BERBAZ>

“Jarraipen estua eta kontrolak behar ditu bere gaixotasunak okertu ez daitezen”

Inma Berriozabal preso elorriarraren osasun egoera izan du berbagai bere ahizpak Herrirak antolatutako berbaldian

**Karmele Berriozabal**

- Erizaina da
- Santutxun bizi da

“Sinestezina da zelan zaintzen duen bere burua. Bera da bere medikua”

zegoela sinatzeko. Inmak ez zuen sinatu; esaten zigun: “Zer sinatu behar dut? Zer egin dut? Horrela pentsatzea?”. Ezker abertzalean egon izan da eta beti egon da lan egiteko prest. Horrelakoa da bera. Birritan eman diote dokumentua; berak esaten du ez daukala zertan eze- rri uko egin.

Karmele Berriozabalek ondo ezagutzen ditu Inma ahizparen gaixotasun kronikoak: hipertentsioa, diabetesa, asma bronkiala, psoriasis, artropatia psoriasikoa... 60 urte dauzka Inma Berriozabalek eta 18/98 auziagatik dago kartzelan, Pontevedran (Galizia). Kartzelan egoteak gaixotasunen kontrola eta zaintza oztopatzen dituela dio Karmele Berriozabalek.

Zelakoa da Inmaren osasun egoera?

Gaixotasun kroniko asko dauzka: hipertentsioa, diabetes melitus, asma bronkiala, biriketako obstrukzioaren gaixotasun kronikoa... Horretaz gainera, psoriasis dauka, eta artropatia psoriatikoa ere bai. Momentu honetan horren eragina jasaten ari da; artikulazioak handitu egiten zaizkio, eta edozein artikulazioetan eduki ahal ditu agerraldiak. Gabonetatik ekainera hiru agerraldi handi eduki ditu. Pasa den martitzenean egin nuen berba berarekin, eta makulua gaz dabil, eskumako belaunean agertu zaiolako azkena. Agerraldiekin hezurra apurtu egiten da

“Denok gaude kartzelan. Dispertsioa familiarrentzat desgaste psikologiko, fisiko eta ekonomiko handia da”

apurka, eta lesioa uzten du betirako. Hori dela-eta, ezkerreko belaunean protesi bat dauka. Eskoliosia ere badauka bizkarean.

Zainketa berezia behar duten gaixotasunak dira.

Ni momentu honetan gehien kezkatzen nauten arazoak bronkioetako eta artropatia dira. Agerraldi horiek kontrolatzeko gehienbat kortikoideak erabili behar dira, eta horrek eragin zuzena dauka diabetean, azukrea igotzen dutelako. Gainera metotrexato injekzioak hartzen ditu, eta hori hartuta hilerio analisiak egin behar dira, defentsek behera egiten dutelako. Gaixotasun horiek jarraipen egokirik ez badaukate txarrera doaz. Anali- siak eta espezialisten kontrol zehatza behar ditu Inmak.

Zelakoa da kartzelako medikuen zerbitzua?

Ez dizkiote behar beste kontrol egiten, eta asko behar ditu,

gehienak espezialistenak. Iazko ekainean tentsioa oso altu eduki zuen eta tentsiorako medikazio barik egon zen. Batzuetan medikamentuak ez daude, berandu heltzen dira bestetan...

Kontrol falta horrez gainera, zelan eragiten dio kartzelan egoteak?

Antsietatea dauka, ziurtasun falta... Antsietatea ez dauka norekin konpartitu; telefonoz ez gara bost minutu ere egoten, eta nirekin berba egiten duenean osasun kontuak kontaktzen dizkit, eta lasaitzen da. Horrez gainera, kartzelako hezetasuna beretzako mortala da.

Animoz zelan dago?

Sinestezina da zelan zaintzen duen bere burua. Diabetearen aparatua lortu nion eta berak egiten ditu kontrolak, pilo bat ibiltzen da, jana asko zaintzen du, sintoma txikienera erizaintzara doa... Medikuen atzetik ibiltzen da, bera da bere medikua. Esfortzu handia egiten du

kanpotik etortzen direnekin ondo egoteko, baina osasunaz oso kezkatuta egoten da.

Kaleratu dezaten eskatu duzue. Zein izan da erantzuna?

Kartzelako medikuak esan zuen eurek gai direla Inma zaintzeko; tresna guztiak dituztela pazientearen osasuna kontrolpean edukitzeko. Behar dituen kontrolei buruzko txostena aurkeztu genuen. Erizaina naiz, eta horrelako patologiak mikroskopio- gaz begiratzen ditugu. Kalean, kontrolak, ospitalea eta espezialistak eskura dauzkate; han ez.

Zelan zaudete familiakoak?

Nik ez nuen pentsatzen hau pasatzen zenik. Ahizpa kartzelan, bai, baina ama, ahizpak, semeak, alabak... Denok gaude kartzelan. Oso batuta egon gara beti bost ahizpok eta ama. Dispertsioa familiarrentzat desgaste fisiko, psikologiko eta ekonomiko handia da. Pentsatzen dut Galiziara asmo batekin eroan zutela. Hasieran, Avilan, nahiko ondo zegoen, eta familiarrentzat oso ondo, joan eta etorri egiteko. Galiziara eroan zuten, eta handik gutxira dokumentu bat eman zioten barkamena eskatu eta bere pentsamenduen kontra

Itxaropentsu zaudete?

Ezkorra naiz. Nire ahizpa ezagutzen ez duen jende asko hasi da bere alde mugitzen, eta nik ere eskatzen didaten guztia egingo dut. Baina Inmaren kontua konpondu? Beste plano batera pasatu dela uste dut. Orain ekonomia da arazoa, ETak esan du honaino heldu dela baina... Politizatuta dago dena, eta interesak daude batetik eta bestetik. Arnaldo Otegi kartzelan badago, eta lider politiko bat da, nire ahizpa eta beste guztiak...

Herrietan Herrira plataformak sortu dira orain.

Santutxuko Herriran nago ni, eta Elorrioren ere badabilta. Santutxukoek txosten bat egin dute Arartekoari eta Bilboko alkateari bidaltzeko. Elorrioren gustatzen zaidana da ideologia askotako jendea dagoela, behar den moduan. Jarri eta berba egiten dute, politikariek egiten ez dutena. Denok batera agian lortuko dugu zeezer. Hamalau gaixoren askatasuna eskatzen da, eta denetik dago; gaixotasun psiki- koak, minbiziak... Inmak ez dauka horrelakorik, baina gaixo kronikoa da. Jarraipen estua eta kontrolak behar ditu bere gaixotasunak txarrera joan ez daitezen. Giza eskubideak dira. ■ A.U.

@anbotokultura

KULTURA>

PINTURA>



“Elkar eragiten dugu eta gauza oso interesanteak sortzen dira horrela”

‘2d1’ proiektuan batu ziren orain urtebete Peru Magdalena eta Gotzon Garaizabal; artista multidiziplinarrak dira biak, eta biek baliatzen dute pintura sormenerako. Erakusketa ipini dute di-da komunikazio enpresan

Zelan sortu da zuen elkarlana?
Peru Magdalena: Orain zazpi urte irakurketak, bertsoak eta margo-lana zuzenean eskaintzen genituen ikuskizuna sortu genuen elkarrekin. Ordutik, hainbat proiektutan jardun dugu.
Gotzon Garaizabal: Horrela hasi ginen, ia konturatu barik, *per-*

formance-aren munduan sartzen, unean uneko ekitaldi artistikoak eskaintzen. Bakoitzak lantzen dituen diziplinetatik, elkarrekin lan egiten hasi ginen, eta berbek eta argazkiek esaten ez dutena eremu libre modura hasi ginen ulertzen. Luzaroan jardun dugu horrelako ikuskizunak egiten, eta

“Azken urteko lanak dira denak, egin ditugun guztien parte bat”

duela urtebete erabaki genuen bide berri hau zabaltzea. Hortik dator *2d1* izena: bik bat egitetik.

Noiz egindakoak dira lanak?
G.G.: Azken urteko lanak dira denak, egin ditugun guztien parte bat. Horregatik, erakusketa hau ez da kontzeptuala, gehiago da

urtebeteko lanaren erretrospektiba, urte oso intentsu baten atzerabegirakoa. Baserri batean hasi ginen elkarrekin margotzen, eta energia itzela sortu zen han, baina baldintza fisikoak kaskarrak zirelako, handik joan eta beste lokal bat hartu genuen... Bide baten hasiera izan da aurtengoa.

Margogintza bakarkako lanagaz lotzen da sarri. Zelan egiten da bikotean?

P.M.: Norberak bakarrik egiten duenean, bere lengoia eta estetika dauka. Batzen garenean, hirugarren, laugarren eta bosgarren interpretazioak sortzen dira.

G.G.: Elkar eragiten dugu eta oso gauza interesgarriak sortzen dira horrela, koktel horretatik.

Muga barik, teknika anitzak baliatzen dituzue koadroetan.

G.G.: Bizanda, eta probokazio hori egonda, askoz gehiago aprobetxatzen da denbora, gauzak azeleratu egiten dira eta hainbat estilo hasten dira sortzen. Horregatik eman dezake erakusketa honetan hamar artista daudela, baina daudena hogeitaka influentzia dira. Teknika, momentuan aukeratzen dugu, baina berez, horri ez diogu inportantzia larregi ematen.

Askotan batzen zarete?

P.M.: Saiatzen gara gutxienez astean behin elkartzen, bai.

G.G.: Ideia bat daukagunean elkartzen gara, ametsetan oinarritutako koadroen seriea, esaterako, bion elkarrizketa batetik sortu zen. **P.M.:** Ametsak beti edukitzen ditugu oso presente, eta sarritan gure lana surrealismotik gertu egoten denez, ametsetako sinbolo eta arketipoak baliatzen ditugu. **G.G.:** Ametsak diren bezala, libreak dira koadrook. Azaltzen ez dakiguna margozten dugu. ■ I.E.



Txakoli dastaketa berezi batez zabaldu dute pintura erakusketa

Joan zen barikuan inauguratu zuten di-da komunikazio enpresaren Abadiñoko bulegoko margo erakusketa; irailera arte dago zabalik, eta asteburuetan ere joan daiteke ikustera

Joan zen barikuan inauguratu zuten erakusketa. Mikel Garaizabalez txakoli dastaketa “plastikoa” egin zuten, eta 150 lagun inguru batu ziren. “Jendeak gure obra bere begiradarekin elikatzea da gura duguna”. Hori konpartitzen dute bi artistek. Eta helburu horre-

“Etap bat amaitutzat ematea izan da erakusketaren helburua”

gaz zabaldu dute erakusketa. Peru Magdalenak gaineratu du erakusketa eratzeko beste arrazoi bat: “Pausu bat aurrera egiteko, Himalayaren tamainako koadro multzo bat ez edukitzeko, eta egindako lana amaitutzat emateko”.

“Gure bidean etapa bat amaitutzat ematea izan da erakusketaren helburua”, gehitu du Garaizabalek. “Bidean etapa bat bete dugula da sentsazioa, eta lasaitua hartu dugu, estresantea izan baita hau guztia antolatzea”. Beste etapa bati ekingo diote laster.

Birziklatutako materialak erabiltzen dituzte koadroak egiteko. Edozein elementu da baliagarria: kartoiak, egurrak, paperak, kaleko iragarkiak...

“Gure lanaren motorra ez da merkatua, gure gogo da”. Eta horregatik, gura dutenean eta nahi duten lekuan erakutsiko dute bilduma. Bestalde, salgai ere badaude erakusketako koadroak.

Udako ordutegian dago erakusketa zabalik, eta nahi duenak, 656 70 43 89 telefonora deituta asteburuetan ere bisitatu dezake.



ZINEMA>

Herriko plazan emango dute hilabete honetako dokumentala

Hilean Behin zikloaren baitan, *El Ambulante* filma emango dute datorren egunean



Argentinan ekoitziriko da uztailean plazan emango duten filma.

E *ambulante* dokumentala eskainiko dute Hilean Behin zikloaren uztaileko saioan. Datorren egunerako, emanaldia lekualdatu eta ordutegi berrian eskainiko dute: herriko plazan, 22:30ean, ilundu eta gero. Argentinan ekoitziriko da filma: Lucas Marcheggianok, Eduardo de la Sernak eta Adriana Yurcovich-ek zuzendurikoa. Azken hamar urteetan hainbat proiektu landu dituzte hiru zinegileek elka-

'El ambulante' lanagaz zinema jaialdian hainbat sari jaso dituzte

Film bat grabatzea proposatuko duen gizon bat da protagonista

rrekin eta *El ambulante* lanagaz Hegoameriketako zein Europako zinema jaialdian hainbat sari jaso dituzte.

Auto zahar batekin herri batera ailegatu eta hango agintariei bertan film bat grabatzea proposatuko dien gizon bat da dokumentalaren protagonista. Filmaren barruan beste film bat: jatekoaren eta ostatuaren truke, herritarrak protagonista izango dituen filma grabatuko dute hilabetez. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Iñaki Etxezarraga, "Etxe" Musikaria



GUSTOKO? BAI/EZ

Azken urteetan telebistak eman ditu izar ugari. Aukera paregabea euki dabe artista askok, eta programa desberdinak ikusi ahal izan doguz.

Badirudi norberak bere talentua erakusteko era ona dala eta batzuk arrakasta lortzen dabela. Baina beste alde batetik artista asko barregarri gelditzen dira jendearen aurrean. Egia esan lotsagarri iruditzen jat jendeari horrelako tratua ematea emanaldi eskas bategatik.

Erraza da ikusle bezala gauzak baloratzea eta nahi dena esatea. Baina artistaren tokian jarri beharko ginateke. Errespetua egon beharko litzateke guztiaren gainetik. Eta norbaitek egiten duena baloratu.

Beti esaten dot norbera gustora egon behar dala egiten dabenarekin eta jendearen kritikei kasu egin barik aurrera egin behar dala. Baina ez da inolaz ere erraza izaten. Kritika txarrekin eragin handia izaten dabe. Onerako izan leikez, baina baita txarrerako ere.

Onartzen ikasi behar izaten dau artistak, eta akatsetatik ikasteko ahalegina egin. Baina beti ez da holan izaten eta batzutan gogoia eta ilusioa galtzen dira.

Horregatik gogoratu beti, norberak egiten daben lana kon-tuan eduki beste batena kritikatu aurretik eta pentsatu gauzak esaterako orduan era desberdinak dagozala kritikak egiteko, eta artista bat baloratzean, batez ere gaztetxo bada hobetzeko aholkuak eman eta ez lotsarazteko.

ANTZERKIA>

Psikiatrikotik irten ostean kanpoko bizimoduari aurre egitea: 'Un loco de desatar'

Antzezlanana Rosa Martinezek zuzendu eta Sardo Irisarrik antzeztuko du; Durangoko Geroa antzerki taldean ibili ziren

Trastada Teatro taldeak dakar *Un loco de desatar* obra. Amador izena du protagonistak. Sardo Irisarri Eibarko aktoreak antzeztu du pertsonaia. Aurkezpen orrian dakarrenez, "bizitza maite du Amadorrek, baina, paradoxa krudela, bizitzak ez du bera maite". Kurutzia hotelan antzeztuko dute, uztailearen 13an, 21:00etan.

Hogei urtez ospitale psikiatrikoan bizi ostean, kanpoko bizimoduari aurre egin beharko dio protagonistak. Juan Sanchez Vallejo jatorrizko testuan oinarrituta dago eta Rosa Martinezek zuzendu du. Durangoko Geroa antzerki taldean hasi ziren antzerkia egiten Sardo Irisarri aktorea eta Rosa Martinez zuzendaria. ■ I.E.

BERTSOLARITZA>

Durangaldeko zortzi bertsolari ariko dira Bizkaiko txapelketan

Igor Elortzak parte hartuko duela adierazi du; Peru Magdalenak, aldiz, utzi egin du lehia

Udazkenean hasiko dira Bizkaiko bertsolari txapelketako saioak. Izen ematea amaituta, osatuzat eman dute parte hartuko duten bertsolarien zerrenda: 38 lagunek jardungo dute aurten. Horietatik zortzi, Durangaldekoak dira, txapelketara bakoitza bere bide-tik iritsi den arren.

Hasteko, Bizkaiko txapelketa nagusia bost biderrez irabazi duen Igor Elortzak, aurtengoan ere parte hartuko duela esan du.

Aurretik inolako kanporaketarik jokatu behar izan barik, txartela poltsikoan zuten beste hiruk: Eneko Abasolo 'Abarkas', Beñat Ugartetxea eta Miren Amuriza 2010ean finalista izan ziren.

Udaberriko finalean Durangaldeko txapela jantzi zuen Gorka Lazkanok, eta Bizkaiko txapelketara sailkatu zen, horrela. Hiru bertsolarik, puntuazioaren arabera lortu zuten udazkeneko saioetan kantatzeko aukera: Garikoitz Sarriugartek, Eñaut Uruburu eta Ander Salaberriak. Kanporaketetako puntuazioaren arabera sailkatua legokeen Peru Magdalenak, ordea, uko egin dio txapelketan jarraitzeari. ■ I.E.

'Abarkas', Ugartetxea, eta Amuriza 2010ean finalista izan ziren

DURANGALDEKO ZORTZIAK

- Gorka Lazkano
1980, Iurreta
- Eneko Abasolo 'Abarkas'
1976, Iurreta
- Beñat Ugartetxea
1979, Mallabia
- Miren Amuriza
1980, Berriz
- Garikoitz Sarriugarte
1976, Zaldibar
- Eñaut Uruburu
1989, Abadiño
- Ander Salaberria
1976, Durango
- Igor Elortza
1975, Durango



(AZ) KOMUNIKAZIOA

DISEINU GRAFIKOA
ETA WEB DISEINUA

LOGOTIPOAK KATALOGOAK EGUTEGIAK FLYER
STAND GONBIDAPENAK ROLLUP KAMISETAK
KARTELAK ALDIZKARIAK ONLINE DENDAK
ENPRESAREN WEBGUNE INFORMAZIO BLOGAK
AZOKA ERAKUSKETEN DISEINUA

DEITU KONPROMISO BARIK!!!

Tel.: 681 305 831 azkomunikazioa@gmail.com



Zaldibarko jai egitaraua

UZTAILAK 6, BARIKUA

- **11:00-13:00 eta 16:00-19:00** Umeentzako parkea, herri eskolan.
- **16:30etan** Durangaldeko Eskolarteko V. Pilota Txapelketaren finala, Olazar pilotalekuan.
- **17:00-20:00** Eskularen erakusketa, Jubilatuen Etxeko beheko solairuan.
- **18:00etan** Graffiti: *Eraso Sexistarik Gabeko Jai Parekideen Alde*, udaletxeko plazan.
- **19:00etan** Kalejira: Debako Elektrotzaranga. Txosnetan hasita.
- **21:00etan** Luntxa, txosnetan.
- **23:00etan** Rock jaialdia: Obrint Pas eta Kruders taldeak.

UZTAILAK 7, ZAPATUA

- **10:30-13:00** Arku jaurtiketa ume eta nagusientzat, Arku taldearen galerian.
- **12:00etan** Tortilla txapelketa, eskoletan.
- **14:30ean** Herri bazkaria, txosnetan.
- **16:00etan** Saskibaloia partida 3x3 (mutilak eta neskak), eskolan.
- **17:00-20:00** Eskularen erakusketa, Jubilatuen Etxeko beheko solairuan.
- **18:00etan** Txosnen Arteko VII. Olinpiadak, parkean.
- **19:00etan** Afari-merienda, Olea kalean: Solomoa (euro bat) eta sardinak (euro bi).
- **19:30ean** Mojito poteoa, Errerre Txaranga bandekin, txosnagunetik hasita.
- **22:30ean** Areto-dantzen erakusketa, Olazar pilotalekuan.
- **00:00etan** Erromeria: Triki Ta Ke taldea, txosnagunean.

UZTAILAK 8, DOMEKA

- **11:00etan** Kalejira, Euskal Herriko Trikitilari Txapelketako txapeldunekin, dultzaineroekin eta Errotxapeako konpartsarekin.
- **12:00etan** Euskal Dantzak, Zaldua plazan.
- **16:00-18:00** Kalejira, dultzaineroekin eta Errotxapeako konpartsagaz.
- **17:00-20:00** Eskularen erakusketa, Jubilatuen Etxeko beheko solairuan.
- **18:00etan** *Balkoitik Balkoira* bertso saioa: Eneko Abasolo 'Abarkas', Uxue Alberdi eta Iñigo Manzisidor 'Mantis' bertsolariak, Zaldua plazan.
- **23:00etan** Su artifizialak, Askorra kalean.

UZTAILAK 14, ZAPATUA

- **08:00-15:00** Mendi ibilaldi neurtua. Irteera. Zaldua plaza.

UZTAILAK 15, DOMEKA

- **11:00etan** Meza, San Martin ermitan. Osteen, Koral elkarteko dantzariak.
- **12:30ean** XXIX. Argazki Rallya. Sari banaketa, liburutegi zaharrean.



PAULAREN ZOKOA

KAFE

EL RINCON DE PAULA

07:00etatik aurrera zabalik

Euskalerrria, 18
94 655 04 81 - Zaldibar

Paularen Zokoa

amets

Euskalerrria 22, behea - 94 603 34 08

BARATZA FRUITADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
48250 Zaldibar, Bizkaia

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Prentsa salmenta
- Fotokopiak
- Gozokiak

Tel./Faxa: 94 682 74 13 • Zaldusolo E.7
48250 ZALDIBAR

Hamalau elkartetako kideek landu dute jaien egitaraua

Hemendik aurrera Zaldibarko Jaiak izena erabiliko dute herriko jai nagusiak izendatzeko



Jai Batzordeak aurten "garrantzia handia" hartu duela eta "erabaki inportanteak" hartu dituela azpimarratu du Olaia Araukok, Bilduren zinegotziak, jaien aurkezpenean. Hamalau elkartetako kideek eta udal ordezkariak osatu dute Jai Batzordea aurten.

Batzorde horretan batu diren herritarrek adostu dute, besteak beste, jaiak izendatzeko modu berria ezartzea: orain arte erabili dituzten Santa Isabel edo Udako San Andres jaiak izenak barik, Zaldibarko Jaiak izena erabiliko dute, honenbestez, aurrerantzean. Bestalde, uztaileko lehenengo eguna hartuko dute jaien data zehazteko erreferentziatzat: eguenetik domekara izango dira jaiak.

Berdintasunaren aldeko mezuagaz, murala osatuko dute udaletxeko plazan

'Balkoitik balkoira' saioa egingo dute, azken urteetan bezala, domekan

asko. Esaterako, *Balkoitik Balkoira* bertso-saioa egingo dute, azken urteetan bezala, domekan: Zaldubaztan ariko dira bertsoak inprobisatzen Eneko Abasolo 'Abarkas', Uxue Alberdi eta Iñigo Manzisidor 'Mantis' bertsolariak.

Gerriko berdea jantzita

Jaietan maoizko prakak edo arrantzale gona, alkandora zuria eta gerriko berdea jantzita ateratzera animatu ditu Jai Batzordeak zaldibartarrak. Herrian jai giroa zabalteko askotariko ekimenak antolatuko dituzte, gainera: Debako elektrotzarangaren kalejira, herribazkaria, eta Errotxapeako erraldioien kalejira egingo dituzte, esaterako.

Iaz ere egin zuten 'mojito poteoa' errepikatuko dute, bihar, 19:30ean. Borondatea eskatuko dute edari karibearren truke, eta Errerre txaranga bandaren musikagaz ibiliko dira kalejiran, ron eta limoidun edariagaz eskuan.

Jai giroa bakarrik ez, aldarrikapena ere zabalduko dute hainbat ekitalditan. Adibidez, Berdintasunaren aldeko mezuagaz, murala osatuko dute, bihar, 18:00etan, udaletxeko plazan. Esaldi hau idatziko dute: *Eraso sexistarik gabeko jai parekideen alde*.

Iaz ere egin zuten 'mojito poteoa' errepikatuko dute, bihar, 19:30ean

Goernu taldeko ordezkariak aurkezpenean azaldu dutenez, azken urteetan harrera ona edukituenak dira Jai Batzordeak osatu duen egitarauko ekitaldietako

Obrint Pasek 'Coratge' diskoa aurkeztuko du

Gaur gauean izango dira Zaldibarko jaietako kontzertuak: Abadiñoko Kruders eta Herrialde Katalanetatik datorren Obrint Pas taldeak ariko dira. Txosnagunean jardungo dute biek, 23:00etan hasita.

2011ko apirilean kaleratu zuten *Coratge* diskoaren aurkezpen biragaz dabilza Obrint Pas taldekoak, hamabost kanta eta 90 orriko testua biltzen dituen diskoa herriz herri zuzenean eskaintzen.

Urte hasieratik 30 kontzertutik gora eskaini ditu talde katalanarrak. Uda honetarako beste hogeit hamar emanaldi baino gehiago dauzkate oraindik aurreikusita: jairik jai ibiliko dira, besteak beste, Euskal Herrian, Herrialde Katalanetan eta baita ozeanoaz bestaldera ere, Hegoameriketan zehar.

Bestalde, Abadiñoko Kruders boskoteak bere punk rock doinuak eskainiko ditu.



Aurrerantzean, uztaileko lehenengo eguna hartuko dute jaien data zehazteko erreferentziatzat

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Launa plus
Ondua

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

"Dinamitero ibilia naiz eta asmatuko dut suziria pizten"

Antonio Gutierrezek botako du aurtengo txupinazoa; 30 urte daroaz herriko Lagunartea txirindularitza eskolan

Zuk botako duzu jaietako txupinazoa emango dien txupinazoa. Urduri?

Ez. Gaztetan, Burgosen bizi nintzanean, Cerezo de Rio Tiron herriko meategian dinamitero ibilia naiz. Beraz, uste dut asmatuko dudala suziria pizten.

Zure seme Franek ere jaietako txupinazoa bota zuen behin.

Munduko txirindularitza txapelketan azpitxapeldun geratu zen urtean bota zuen. Gogoan dut, bolbora presio handiz sartu zutenez, txupinak ez zuela surik hartu nahi. Azkenean lehertu egin zen eta udaletxeko balkoi-ko banderek sua hartu zuten. Inguruan zeudenek korrika ihes egin zuten.

Aurten ez ahal zaizu berdina gertatuko!

Ez. Horrelakoetan bolbora atera eta presio gutxiagotzat hartu beharra dago. Badaezpada begiratuko du zelan dagoen eta ez zait berdina gertatuko.

Balkoiaren azpian begira egongo diren herri-tarrei zer mezu helarazi gurako zenieke?

Eskerrak emango nizkieke denei nitaz gogoratzearen. Horrez gainera, denei Lagunar-

tea txirindularitza eskolan inskribatzera gonbidatuko nituzke.

Zelan bizi dituzu herriko jaiak?

Ez naiz gehiegi ibiltzen. Ortu bat dut eta hura zaintzea gustatzen zait. Hantxe ematen dut denborasarritan. Lagunekin egotea ere atsegin dut, baina jaiak datozenean ez naiz paela txapelketetan eta antzerakoetan parte hartu zalea.

Zer poza eman dizkizu txirindularitza eskolak 30 urte hauetan?

Fran, Antonio eta Jesus semeak Lagunartea txirindularitza eskolan ibili dira. Hirurak bizikleta zaleak dira. Horrek poza ematen du. Gogoan dut, Burgosera oporretan joaten ginenean autoaren gainean lau bizikleta eramaten genituela, bakoitzak berea. Gurekin ibili diren txirindulariak gora hel-tzen direla ikuste ere pozgarria da. Orain Tourrean dabilen Ruben Perez gugaz ibili zen, esaterako.

Eta urte hauetan denetan zerk eman dizu penarik handiena?

Txirindulari gazte asko izan ditut gora heldu zitezkeenak eta arrazoi bategatik edo besteagatik heldu ez direnak. Dohai politiko gazteak egon dira gure eskolan, bat eta bi baino gehiago gainera. Horrek eman dit penarik handiena.

Zelan sortu zenuten Lagunartea txirindulari eskola?

Orain 30 bat urte sortu genuen txirindularitza eskola. Antonio semeak zazpi-zortzi urte zituen orduan eta ilusio eta gogo handiz ibil-



tzen zen bizikletan. Orduan ez zegoen txirindularitza eskolarik Zaldibarren. Cipriani komentatu nion, txirindularitzako epailea bera, eta ideia proposatu zidan. Ostean, Lagunartea elkarteko kideei galdetu nien eta bataren eta bestearen semeak batuta sortu genuen.

Ibilbide luzeak egiten dituzu?

Pare bat orduko itzulia egiten dut. Ez dakit kilometrotan zenbat izango diren. Nik denboraren bidez neurtzen ditut irteerak. Bizikletan ibiltzea gustatzen zait eta nabaritu egiten dut ez nabilenean. Astebetean edo egun batzuetan bizikletan ibiltzen ez banaiz hankak arraro izaten ditut.

Bizikleta zaleok familia handi bat zarete.

Halaxe da. Arropa asko ditut bizikletan ibiltzeko eta tartekatuta egiten ditut. Egun batean bat eta hurrengoan bestea. Arropa batez edo besteagaz irten, gehienek ezagutu egiten naute. "Guti!", oiher egiten didate. Horrek poza ematen du.

Lan asko ematen du txirindularitza eskola aurrera eramateak?

Askok. Eskerrak eman gura dizkiet eskolako gazteen gurasoei, beti laguntzeko prest daudelako. Zerbait proposatu eta euren burua eskaintzen dute ahal duten guztian eskolarri laguntzeko.

Zaldua kirol elkarteko kidea ere izan zinen orain urte batzuk?

Bai, lau-bost urtean zuzendaritzako kidea izan nintzen. Zaldua ere elkarte garrantzitsua da herrian.

"Eskerrak eman gura dizkiet eskolako gazteen gurasoei, beti laguntzeko prest daudelako"

"Arropa batez edo besteagaz irten, gehienek ezagutu egiten naute. Horrek poza ematen du"

Betidanik ibili zara bizikletan?

Ni Burgosekoa naiz eta han bizi nintzanean askotan bizikletan joaten nintzen lanera. Hemen, batez ere eskola sortu ostean hasi nintzen bizikletan ibiltzen. Sasoi batean zikloturista denok elkarrekin irteten ginen eta neu ere bai, baina orain, adinagatik eta medikuen aholkuagatik, neure kontura ibiltzen naiz batez ere, neure erritmoan eta lasaia.



Azkonizaga

Ortizar auzoa, 1 • 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel./Fax: 94 681 06 52
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑAFLARA • LA ASTURIANA

CASTET ELKARTEA



Presak euskal
Herrira

Bilbao etorbidea, 26 - 48250 Zaldibar

ANTZERKIA >

Hamar segunduro barrea eragingo du Tricycle eta Clownic taldeen ikuskizunak

Elorrioko Musikaire jaialdiaren barruan izango da 'Ticket' umorezko antzezlanak ikusgai, herriko plazan, etzi



Herrialde Katalanetako Tricycle taldearen lanak munduan zehar antzezten hamalau urte daramatza Clownic taldeak. Baina, Elorrioko Musikaire etzi eskainiko duten *Ticket* ikuskizuna, Clownic sor-

Tricicleren ezaugarri artistiko eta estetikoak ditu ikuskizunak oinarri

tutako lehenengo lana da. Eduard Mendez, Xevi Casals, Gerard Domenech eta Marc Monsetarratek osatzen dute Clownic, eta Triciclegaz jardun dute lan honetan. Clown ikuskizuna da *Ticket*: Tricicleren ezaugarri artistiko eta

estetikoak oinarritzat hartzen dituena. Izan ere, Tricicleren antzerkigintzaren oinarriak dira Clownicetako sortzaileak. Umorezko filmen barneko bidaia da *Ticket*. Umorezko zinemagintzako sekuentzia ezagune-

nak dira obraren ardatz: esaterako, Charles Chaplin, Marx anaiak, Keaton, Laurel eta Hardy edo Monty Pythonen eszenak berrinterpretatzen dituzte, baina Clownic eta Tricicleren eran. Absurdia eta erridikulua dira antzezlanaren ezaugarri nagusiak. Hamar segunduro barrea eragingo dutela segurtatu dute sortzaileek.

Gaur zortzi, dantza

Donostiako Dantzaz konpainiaren eta Itzik Galili koreografoaren kolaboraziotik sortutako dantza ikuskizuna egongo da astebete barru, *Arte-an*; hau ere, Musikaire jaialdiaren egitarauaren baitan. Israelgo koreografoaren *Earth apples* eta *Flash deluxe* ikuskizunetan oinarritutako obra da.

Energia eta maisutasuna uztartzen dituzten 'Arte-an' dantza saioan

Galili koreografo israeldarraz gainera, Lukas Timulak eslovakiar dantzariak ere parte hartuko du *Arte-an* ikuskizunean.

Energia handia eta maisutasuna uztartzen dituzte *Arte-an* dantza saioan. Paxkal Indo musikariak perkusioagaz eta txalapartagaz sortutako musikaren erritmoan egiten dute dantza. ■ I. E.

MUSIKA >



Lau musikari polifazetiko tresna eta keinu askorekin

San Agustin kulturgunek gonbidatuta *El show de Dodó* eskainiko dute gaur, Uda Kalean Bizi jaialdiaren baitan

Buenos Aires eta Madrilgo lau musikari osatzen dute Dodó-ren ikuskizuna. Eta askotariko instrumentuak jotzen dituzten lau musikari handi dira sortzaileak. Besteak beste, biolontxelo, biolina, tronpeteta, pianoa, akordeoia, harmonika, klarineta, perkusioa eta ahotsak izango dira *El show de Dodó* saioan entzungai. Biolin-tronpeteta bezalako instrumentu bereziak ere joko dituzte Marina Sorin, Luca Frasca, Nacho Mastretta eta Martin Bruhn musikariek.

Musika baino gehiago da 'El show de Dodó': clown teknika ere badarabilte

Kultura antzokitik kalera ateratzeko antolatuta dute Uda Kalean Bizi

Kabareteko musika egiten dute, eta entzuleak 1930eko hamarkadako Berlingo girora eroaten dituzte musikaren bitartez. Musika emanaldia baino gehiago da *El show de Dodó*: antzerkiko clown teknika ere badarabilte. Gaur, Andra Marian eskainiko dute ikuskizuna, 20:00etan.

Durangaldeko sortzaileak

Eskualdeko sortzaileek parte hartzen duten bi lan ere badakartza datozen egunetako Durangoko kultur egitarauak: La Papa Teatro taldearen helduentzako ipuin kontalaria, uztailearen 12an; eta Gorra Gansok zuzentzen duen *Orsai*. Kultura antzokitik kalera ateratzeko antolatuta dute Uda Kalean Bizi programazioa, eta hainbat aukera eskainiko dizkio datozen egunetan kulturzaleari. ■ I. E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

eskatu ezazu **menu BONOIA**

ordaindu 9 menu eta 10 jan

1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10. dohainik

ABUZTUAN ITXITA EGONGO DA

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

EL SHOW DE DODO
Musica Cabaret
ANDRA MARIA PLAZA
Uztailak 6 - 20:00

TE CUENTO LAS MIL Y UNA...
La Papa Teatro
KURUTZESANTU MUSEOA
Uztailak 12 - 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

UDA KALEAN BIZI

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Eskerrik asko Ana Otadui, Elorrioko alkatea

Eskerrik asko Ana Otadui, Elorrioko alkate andrea. Zuri eta zure taldeari esker elorriarrok berdintasuna lortu dugu. Zertan? Apatako igerilekuetan. Bai, bai, adiskide eta elorriar guztiok. Aurten Apatako igerilekuetako bazkide egiten zaretenok/garenok, Apatako Udalak inposatu digun kuota ordaintzen badugu, ordaindutakoaren froga agiria gure udaltxera, Elorrioko udaltxera, eramanez gero, eta gure kontu korrontea eramanez, Apatakoekiko ordaindu dugun aldea bueltatuko digute. Beraz, gugatik lanean dabilzan Ana eta bere taldeari zorionak ematea besterik ez dugu, zorionak eta eskerrik asko, segi horrela.

Gauzak txarto egiten direnean esan egin behar direla uste dugu, baina ondo egiten direnean ere eskerrak ematen jakin behar dugu. Gure udalak gugatik egin duena aipagarria dela deritzogu.

Leire Arteaga eta Elorrioko beste 25 erabiltzaile

Gardena eta bermatzailea izango litzateke isurketaren bolumena Jaurlaritzak zehaztu dezala onartzea

Iurretako bizilagunoi bidali diguzun gutunari erantzunez, Goiuriko Kofradiak esan nahi dizugu, gutako askok ez zaitugula pertsonalki ezagutzen, alkate gisa baino ez. Hortaz, aurkeztutako ezespina ez zegoen hiritar arrunt bati zuzenduta, udal agintari gorenari baizik. Zure udal taldeak gehiegikeria edo desegokitasun zantzuak aurkitu izan balitu, ez zukeen gure eskaria aintzat hartuko. Beraz, errua bizilagunei botatzea, ezespina onartu zuten zinegotzien gaitasuna dudan ipintzea da. Eta guk, Goiuriko zabortegearen kasuan bakarrik jarri dugu zalantza zure alkate lana.

Baziren arrazoi nahikoak baimen espedientetik aldendu zintezten eskatzeko. Izan ere zure interesak oso urrutia daude bizilagunok ditugunetik. Ez dugu ulertzen zerk bultzatzen zaituen jarduera irregularra duen enpresa baten alde egitera, pertsonen segurtasuna, bertako negozioak eta denon ondasuna den inguru naturala alde batera utzita. Zalantzarik ez dago BI-3341 errepede oso arriskutsua dela eta erabat hondatuta dagoela baimendutako 16 tona baino gehiagoko kamioien joan etorriagatik. Goiuriko errepede estua eta bihurtuak da eta ez dago bazterbiderik. Ezinezkoa baimendu nahi duzun proiekturako. Beraz, bidezkoa da arrisku gehiago jasan nahi ez izatea gure etxetatik irten edo sartzen garenean. Eta arrisku hori saihestu nahi dugu, zuk ere herritar moduan egingo zenukeen bezala, zure eta zure familiakoen segurtasuna babesteko. Harritzen gaituena da, alkate moduan, ez egitea.

Jakin badakizu proiektuak ez duela alde guztien baimenik eta hala eta guztiz ere, ezkututzen jarraitzen duzu. Zabortegearen egonkortasuna bermatzen ez duten hutsuneak daude eta,

adituen txostenen arabera, zalantza handiak daude isurketek etorkizunean izan dezaketen eraginaren gainean. Badakizu alkate jauna, arrazoi hori dela eta kalteak sortu dituen lur jausi larri bat egon dela, baina erantzukizunak eskatu beharrean, ez zenion udaltzaingoari ikusitakoa deklaratzeko utzi. Alegia, kanalizazio hodiak ez zeudela eta urak bidearen zati bat eraman zuela Zal-dai errekaraino. Harrigarria da lizentzia babesteko duzun gogo bizia. Eta gainera, gu isilik egotea nahi duzu, zure baimenaz, promotorea zigorgabetasunik gabe ari dela ikusten dugunean. Jarduera arautua dagoen arren, guztion interesen mugen barruan egin behar dela deritzogu.

2011ko udan, ehunka kamioi igaro ziren BI-3341 errepedetik zabortegeko norabidean. Orduan ikusi genuen nola botatzen zituzten hondakinak betetze bazoetan inolako baimenik gabe. Baina hori ez geldiarazteaz gain eta salaketak ez ikertzeaz gain, gure egari uko egin diozu, gure begiekin ikusi genuenari eta denen begi aurrean dagoenari.

Gardena eta bermatzailea izango zen isurketen bolumena Jaurlaritzak zehaztu dezala onartzea. Kofradiari, hau da, Alkatezako baimen antzinakotasun handiagoko duen herri erakundeari, begirunea erakustea. 2007. urtetik, 9.000 m³ isuri direla erakusten duen adituen txostena helarazi dizugu erakunde honek. Gardena eta bermatzailea izango zatekeen Lubako S.L. enpresari espediente zigortzailea irekitzea, Bakixan eta Garaizarren egin zuten bezala, baimenik gabeko isurketengatik 22.499,50 eta 11.249,75 euroko isunak ezarrita. Gardena eta bermatzailea izango zatekeen, zabortege pribatu horrek baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko diru publikoarekin egindako adituen txostenak ordaindu beharrean, promotoreari berari ziurtagiri formal eskatzea, jakiteko jatorri ezezaguneko masa horrek, azpian, hondoko drena eta xafla geozuntza zituen ala ez. Bakixan eskatu duzun bezalaxe eta han, promotoreak bere poltsikotik ordaindu du txostena. Gardena eta garantista izango zatekeen gauzak argitzeko kofradiak zure eskura ipini dituen froga guztiak onartzea.

Behin baino gehiagotan, enpatia erakutsi dizugu eta akordio batera iristeko borondatea ere bai, zabortegea, inguratu dion iluntasunagatik eta piztu duen alarmagatik lodituz joan den *marroia* delako. Zure aurretik eta zure agintaldian ere, udalak 220.000m³ hondakin baimenik gabe isurtzen utzi du. Eta ondorioz, bizilagunek zarata burrunbatsua jasan behar izan dute, hainbat egunetan, bertan bizitzeko egoki ez zirenean etxe barruetan eta kanpoan ere. Eta gainera, hautsa, lokatza, udal eta foru errepedeak hondatuta, arrailak eraikinetan eta babesik ez agintarien aurrean. Horregatik guztiagatik ezin zara inpartziala izan lizentzia honen kudeaketan.

Zure idatzia, iraineen oinarritutako asmoen adierazpen bat dirudi. Errespetua eskatzen duzu alkatea zarelako, benetako herritar arruntak desabantailan jartzen dituzula ahaztuz. Eta denok ordaintzen ditugun zergetatik sortutako baliabide publikoak erabili dituzu faltsuak eta asmo txarrez egindako kritikak deritzozunak salatzeko. Are gehiago, gezurrak esan dituzu hainbat bizilagunen gainean eta ez duzu, dagokizun moduan, euren segurtasuna zaindu. Oso kezagarria da, alkate jauna, Iurretako udaleko armarrira daraman idatzi batean, arazo pertsonalak planteatu izana benetako gertakari buruzko informazioa eman beharrean.

Goiuriko Kofradia

Sei hankako mahaia



Dani Maeztu Aralar

Atxarten hondakinak aparkatzea

Herritarra gero eta mesfidatiagoa da botere publikoak egiten duen politikarekiko. Zelatari gabiltza, badaezpada. Normala da jarra hori, logikoa, anormala baita botere publikoak gehientsuenean egoki jokatzeko. Gogora datorrigun azken adibidea Jaurlaritzaren Atxarteko harrobiaren berreskuratze proiektuarena da.

Aralarrek azken hiru urteak eman ditu Industria sailari plan jakina eskatuz, EAEn abandonatuta dauden harrobiak berreskuratzeke plangintza egin dezan. Hori lortzeko, ekimen zehatzak onartu dira Legebiltzarrean Aralarren ekimenez eta gobernuaren ordezkariekin egindako bileretan ere berba politik entzun izan ditugu gure proposamenaren inguruan. Berba politik, bai, baina ez zintzoak.

Jaurlaritzak ez du inguru hori herritarrentzako eta naturarentzako berreskuratu gura

Jaurlaritzak ezer gutxi egin du hiru urte hauetan utzitako harrobien inguruak berreskuratzeke. Eta EAEko ekonomiaren, kohe-sioaren, progresoren eta atributu positibo guztien jainkoa etorri behar izan da Lakuakoei begiak zabaltzeko: AHTren baretatik ateratzen diren hondakinekin Atxarten utzitako zuloa betetzea bururatu zitzaion norbaiti. Hori ziria sartzea da herritarrei.

Jaurlaritzak ez du inguru hori herritarrentzako eta naturarentzako berreskuratu gura; ez du bere jardura plangintza zehatz eta publikoarekin egin gura; ez dio, parke natural baten barruko jardura horri, ingurumenaren inpaktuaren gaineko ebaluazioa pasatu gura. Ziria sartu nahi digu Jaurlaritzak, baina bage-nuen susmoa, herritarra mesfidati eta zelatari dabilelako.

Jaun andreok, egin nahi duzuen, Atxarte berreskuratzea barik, Atxarten hondakinak aparkatzea da.

Laguntzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko uztailearen 6a
10. urtea - 466 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
Kepa Camacho.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Juanra de la Cruz, Zaloa Fuertes.

@anbotokirola

KIROLAK >

Criquetta, lagunartean batzeko aitzakia Elorrioko indiarrentzat

Ahal dutenero Elorrioko errugbi zelaian batzen dira Indiatik etorritakoak elkarrekin jolasteko



Elorrioko indiarrek errugbi zelaian; goiko ilaran eskumatik hasita lehenengoa da Jijo Ammandyil Varkey.

Jijo Ammandyil Varkey orain bost urte etorri zen Indiatik Euskal Herrira beste lau lagunekin batera, lan eskaintza bat onartu ostean. Beste herrialde bateko kultura eta bizimodua ezagutzeko aukera tentagarria iruditu zitzaizkion. 2009an beste bost lagun gehitu zitzaizkion. Hemengo bizimodua estimatzen dute eta bertakotuta daudela diote, baina ez dituzte sustraiak ahaztu. Indian kirolik ezagunena criquetta da eta lagunartean batu eta

hartuemana mantentzeko aitzakia legez erabiltzen dute.

Astebururo batzen saiatzen dira, baina ez dute beti lortzen, nork bere familia eta eginbeharrak dituelako. Sasoi batean Elorrioko parke batean jokatzen zuten. Udalak umeentzako parkea egin zuen han eta Elorrioko errugbi zelaira tokialdatu ziren.

Hasieran jendea begira geratzen zitzairen: "Zer egiten ari ote dira?", galdetzen zioten euren buruari. Batzuk hurreratu ere egiten zitzaizkigun. Gustura azaltzen genien criquetta zer zen eta nongoak ginen", gogoratu du Jijok: "Orain, nire herrian baino ezagunagoa naiz Elorrion", onartu du irribarre batez.

Euren jatorrizko kulturaren eta hemen ezagutu dutenaren

arteko zubiak eraikitzeko lan-tresna aproposa iruditzen zaie criquetta, eta inoiz zerbait antolatzeko saiatu direla dio: "Behin errugbi taldekoekin egon eta guk errugbian eta eurek criquetean jokatzen ikasteko aukerari buruz berba egin genuen. Azkenean, asmoa hortxe geratu zen".

"Orain nire herrian baino ezagunagoa naiz Elorrion"

Asmo hori ez zen mamitu eta ez dute bestelako asmorik buruan, oraingoz ez behintzat. Bergaran bada criquet talde bat,

pakistandarrek osatua: "Askotan jokatzen dute eta guk ez; asko gustatuko litzaiguke partidu bat jokatzea, baina ondo entrenatu barik pentsatu ere ez!". Elorrion ere bazen Pakistango koadrilla bat iluntzeetan herriko plazako frontoi irekian batzen zena criquetean jokatzeke: "Batzuetan euren gaitasuna joaten nintzen berba egin eta criquetean jokatzeraz. Aspaldian ez ditut ikusi", aitortu du penaz.

Orain hilabete bi gaztelarazko B2 maila gainditu zuen Jijok. Irailean euskaltegian izena emango duela dio: "Hizkuntza zaila dela diote, baina saiatu egin nahi dut. Orain euskaraz, bat, bi... Zazpi garagardo eskatu ditzaket gehienez. Irailetik aurrera nahi adina!". ■ J. Derteano

Gorka Bizkarra bigarren izan da Garaiko triatloian

Josu Uriarte markinarrak irabazi zuen Garaiko II. Triatloia joan zen domekan (4:37:30). Gorka Bizkarra mañariarrak bigarren amaitu zuen (4:39:08). Triatloi "oso gogorra" dela dio Bizkarrrak, baina datorren urtean ere parte hartuko duela egutegiak baimentzen badio. Iñigo Lazkanok osatu zuen podiuma. Garaiko Triatloi taldeko Aitor Astorkia eta Ander Azpitarte zortzigarren eta hamaikagarren sailkatu ziren. Emakumeetan Veronica Dominguez gasteitzarrek irabazi zuen. ■ J. D.

> Bideoa: www.anboto.org

Indartsu itzuli da Lejarreta eta Aoizko BTT proba irabazi du

Saihetseko lesioa gaindituta duela erakutsi du Iñaki Lejarreta berriztarrek. Joan zen asteburuan Aoizko BTT proba irabazi zuen (1:54:55), Caja Rural Koparako lasterketa puntuagarria. Orbea taldeko txirindulariagaz batera Ismael Ventura izan zen ordu bitik jaistea lortu zuen bakarra.

Lejarretak hasi eta amaitu agindu zuen lasterketan. Ventura minutu bat eskasera egon zen ibilbide erdira arte, baina ordutik helmugara lau minutura igo zen aldea. Haizeak indartsu jo zuen lasterketan, eta txirindularien lana zaildu. ■ J. D.

Herriko talde batek irabazi du Zaldibarko futbito maratonia

Joan zen asteburuan jokatutako Zaldibarko futbito maratonia herriko talde batek irabazi du: Caldereria Ederkalde taldeak. Elorrioko bi taldek (Estropeadiños eta Parra taberna) eta Ermuko Totenhamek osatu zituzten lehen lau postuak.

Golik gutxien jaso zuen atezaina David Olmo izan zen, txapelketa irabazi zuen taldeko atezaina. Alex Santiago (Totenhame) izan zen pitxitxia eta Arkaitz Rodriguez (Estropeadiños) izendatu zuten jokalaririk onena. Guztira 21 taldek parte hartu zuten maratonia eta zale asko batu zituen. ■ J. D.



Boxeo ikastaroa emango du Poli Diazek Abadiñon

Uztailaren 14an Traña-Matienako erabilera anitzeko kiroldegian egongo da zortzi bider Europako txapeldun izandako boxeolaria



Poli Diaz (bigarrena eskumatik), Valladoliden, Fexmack kickboxing klubeko kideekin.

Poli Diaz boxeolari ohi madrildarrak boxeoaren inguruko ikastaroa eskainiko du uztailaren 14an Traña-Matienako erabilera anitzeko kiroldegian. Fexmack kickboxing klubak antolatuko du ekimena. Ikasle kopurua mugatua dela jakinarazi dute. Traña-Matienako Zeus gimnasioan inskribatu ahal da, 35 eurotan.

Ikastaroa 10:00etan hasiko da eta lau ordu inguru iraungo du. Fexmack klubeko zuzendari Mack Tiradoren esanetan, Abadiñoko izango da Poli Diazek Euskal Herrian emango duen lehenengo ikastaroa. Ekimenaren bidez boxeo eta kickboxina ezagutara ematea da antolatzaile-

“Diaz zentratuta dago eta esperientzia zabala du ikastaroak ematen”

leen helburua. Adierazi dutenez, ikastaroan parte hartzeko ez da ezagutza berezirik behar. Hasi berriak zein esperientziadunak animatu ahal dira: “Izena ematen dutenen maila neurtuko dugu eta egoki ikusten bada talde bi egingo ditugu”. Ikastaroa praktikoa izango da, baina kontaktu gabekoa: “Mugimenduak, tekni-

kak erakutsiko ditu. Diaz ondo dago, zentratuta, eta esperientzia zabala du ikastaroak ematen”. Tiradok ikastaro bat eman zuen orain hiru aste Valladoliden (Espainia), eta Diaz ere hantxe zegoenez, orduan proposatu zion ikastaroa ematea.

Europako txapelduna

Poli Diazek 80ko hamarkada amaieran eta 90eko hasieran hartu zuen famarik handiena. Pisu arinetan Europako txapeldun izan zen eta zazpi aldiz defendatu zuen gerrikoa. 1991n pisu arinen munduko titulua jokatu eta galdu egin zuen Pernell Whitakerren aurka. ■ J.D.

Erlojupekoan Oiarbide izan da Euskadiko onena

Joan zen domekan erlojupeko Euskadiko txapelketa jokatu zuten Elorri. Lourdes Oiarbidek (Beste Alde Rent A Car-Oue) erakustaldia emanda irabazi zuen gazteen mailako txapelketa. Oiarbidek eta Inma Vianak elite mailako denborak hobetu egin zituzten, gainera. Gaur egun, Oiarbide Espainiako erlojupeko txapelduna ere bada gazteen mailan. Ziortza Isasi taldekidea ere irabazteko faboritua zen gazteetan, baina zulatu batek aukera barik utzi zuen.

23 urtez azpiko mailan, Bizkaia-Durango taldeko Ane Santesteban izan zen azkarrena. Zortzi segundo atera zizkion Irene San Sebastian faborito nagusiari. Hirugarren tokian Mireia Martida sailkatu zen. ■ J. D.

Luchon-Baiona etapan saritu egin dute lurreta Txirrindulari Elkarteak

Bi urterik behin Luchon-Baiona izeneko txirrindularitza etapa antolatzen du Aviron-Bayonnais taldeak. Frantziako Tourrean Pirinioetan igotzen diren mendi mitiko gehienak igotzen dira, Lapurdin amaitzen den 319 kilometroko etapa: Peyresourde, Aspin, Tourmalet, Soulor eta Aubisque. Lurretako Txirrindularitza Elkarteko 30 lagunek egun bitan osatu zuten ibilbidea. Ordezkarik gehien eroan zituen elkarteak izan zenez, saria eman zioten antolatzaileek lurretako taldeari.



ADITUAREN TXOKOA

Iker Saenz de la Cuesta
Areto futbol entrenatzailea



Nire barrura begira

Amaitu da denboraldia, eta gehienetan denboraldian egindakoa aztertu ondoren pare bat asteko atsedendaldia behar izaten dugu indarberritzeko (pentsatu beharko genuke atsedendaldia horiek behar izatearen zergatia). Atsedendaldia amaituta, datorren denboraldia hobeto prestatzeko eta egindako akatsei konponbidea aurkitzeko epea hasiko da. Hori izan da beti nire asmoa, baina aurten nire plana aldatu behar izan dut.

Bastidan ANEFSek antolatutako kongresuan egotea aukera ezin hobea zen nire ezagupideak areagotzeko, han zirelako momentuko entrenatzaile onenetariko asko. Baina inportanteena ez da han ikasitakoa, nahiz eta asko izan, baizik eta kirolagaz eta lehiaketagaz batera eskaintzen digun hainbat baloretan sakontzea (bizikidetzak, hartueman pertsonalak, autokritika, apaltasuna, adeitasuna, kiroltasuna...). Hango kide eta txostengile batzuk (askok txapelketetan aurkari) hiru egunetan lagun bihurtu baitira.

“Duda”-rekin batera (El Pozo Murcia-ren entrenatzailea), ANEFS txapelketan Euskadiko delegazioarekin jokalaria bezala parte hartzeko aukera, Diego Riosekin (Azkar Lugo) bazkailondoa partekatu, Pep Marirekin (kirol psikologo ezaguna) edo Xuxorekin (Galdar) izandako solasaldiak, eta beste hainbat esperientzia aberasgarri bizi izan ditut.

Eskerrik asko ANEFS, hemendik aurrera ez dut ahaztuko zergatik naizen entrenatzailea. Helburua ez da onena izatea, jokalaria hobea egitea baino, eta bide batez, gogoko dudak kirolagaz gozatzea, horrek gainerako helburuak lortzera bultzatuko nauelako.

Uriarte eta Gonzalez parez pare Tornosolo trinketean

Euskadiko eliteen finalerdia jokatu dute

Eliteen mailan, Euskadiko buruzburuko finalerdiak jokatu dituzte gaur, 19:00etatik aurrera, Abadiñoko Tornosolo trinketean. Finalerdi batean parez pare egongo dira Rober Uriarte abadiñarra eta Iker Gonzalez berriztarra. Gonzalezek erraz kanporatu zuen Liher Gandiaga

final laurdenetan: 40-15. Uriartek, aldiz, justu-justu irabazi zion Iker Gordoniri: 40-37.

Beste finalerdian Ander Antxia abadiñarrak Mikel Rafael izango du etsai.

Finalak uztailaren 20an, barikuan, jokatu dituzte Abadiñoko trinketean. ■ J. D.

Gomazko paleta zirkuitua irabazi du Praderak

Itsaso Pradera mallabitarrak gomazko paleta zirkuitua irabazi du Leire Etxaniz bikoteki-deagaz batera. Emozioz eta joko onez betetako finala jokatu zuten Araiztegi eta Saez bikotearen aurka.

Praderari eta Etxanizi aldapan gora ipini zitzairen finala lehenengo set-a galduta (9-12). Bigarren setean sufritzen jakin zuten eta, serio jokatu, euren aldera ekartzea lortu zuten (12-9). Hirugarren eta azken setean erabaki zen txapela. Hor ere markagailuari buelta eman behar izan zioten irabazleek, 0-3 galtzen hasi zirelako. Orduan jokatu zituzten partiduko tantorik onenak lau pilotariek, bertaratu ziren zaleen gozagarri. ■ J. D.

Zaldibarko gazteek lau final jokatu dituzte

Durungaldeko V. Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur eta bihar, 16:30etik aurrera, Zaldibarko pilotalekuan. Zaldibarko gazteek lau finaletan bost ordezkari sartzea lortu dute. Umetxoan, A mailako gazteetako finalerdi, Elorrio, Atxondo eta Mallabia izango dituzte arerio. Umeen mailan, aldiz, Zaldibarko bikote biren artean erabakiko da txapela.

Gainerako finalak honako hauek izango dira: Mallabia-lurreta B mailako gazteetako finalerdi, Berriz-Atxondo B mailako kadeteetan eta Atxondo-Markina gazteetan.

Kadete eta gazte mailako finalak lau finalerdi batean jokatu dira eta gainerakoak binaka. ■ J. D.

amalurra AISIALDIA >



Kontenedore berdeetara zer bota eta zer ez argituko dute bihar Zaldibarren

Azalpen guztiak jolas parte-hartzaileen bidez emango dituzte; Amankomunazgoak eta Ecodidriok ipiniko dute informazio gunea



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak eta Ecodidrio erakundeak beiraren gaikako bilketaren aldeko kanpaina garatuko dute. Jasotako beira kopurua eta honen kalitatea hobetzeko asmoa dute. Bihar Zaldibarren ipiniko dute informazio gunea, udaletxeko plazan, 10:30etik 13:30era.

Jolasak erabilia

Azaldu dutenez, kanpaina biztanleria osoarizuzenduta dago eta informazio puntu ibiltari batean egingo dute. Informazio gune horren helburua hau da: beiraren kontenedore berdera bota beharreko ontzien inguruan informatzea. Adierazi dute herritarrek hainbat galdera edukitzen dituztela: beiraren birziklapen zikloa, edukiontzi berdean utzi behar eta ez dena, biztanleak beiraren birziklapenaren zikloan daukan garrantzia... Azalpen horiek guztiak jolas parte-hartzaileen bidez ematen saiatuko dira. Gainera, hurreratzen diren lekupokoak edota eskumuturrekoak egin ahal izango dituzte. Beraz, umeentzako moduko ekimena ere bada bihar garatuko dutena.

Herritarrek material honen birziklapenean daukaten jokaerak arduratzen ditu kanpainaren antolatzaileak. Argitu dutenez, kontainer berdean beirazko botila, pote eta ontziak bota behar dira bakar-bakarrik.

Bota ezin dena

Egunerokotasunean herritarrek edukiontzi horretan botatzen duten guztia ez da leku horretan botatzekoa. Kontenedore berdean agertu ohi diren material batzuen zerrenda ere aipatu dute arduradunek: zeramika, portzelana, ispilu eta leihoetako kristalak, bonbilak, fluoreszenteak, tapak, tapoi eta txapak, kortxoak eta plastikozko poltsak, eta beira hutsa ez den abar luze bat.

Kontzientziazioaren bila

Amankomunazgoagaz batera lan hau egingo duen elkarteak Espainia osoan zabaldu ta dauka jarduna. Irabazi asmo bako elkar- tea da. Beira birziklatzeaz gainera, herritar- rrek kontzientziatzea ere badu helburu. Arlo honen baitan, eragile sozial eta ekono- mikoek elkarlana ere bultzatzen du, azal- du dutenez.

Jasotako beira kopurua eta honen kalitatea hobetzeko asmoa dute

Udaletxeko plazan ipiniko dute gunea, 10:30etik 13:30era

Umeentzako moduko ekimena ere bada garatuko dutena



AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Uztailearen 7an, 22:30an, Elorrioko Tola jauregian

LUISA SOBRAL

Ahotsa, gitarra, papera eta bolaluma dira Luisa Sobral portugaldarraren tresnak. Hamabi urterekin hasi zen musika egiten, 24 dauzka orain, eta lehenengo diskoa aurkeztera dator Elorrioko Musikaire jaialdira: *The cherry on my cake*. Jazz abeslari onenaren saria jaso zuen orain urte batzuk AEBetan, eta jazz eta Brasilgo musika jorratzen ditu.

ANTZERKIA

DURANGO

- » Uztailearen 12an, La Papa Teatro taldearen *Te cuento las mil y una...*, helduentzako ipuin kontalaria, 20:00etan Kurutzasantu museoan. Uda Kalean Bizi jaialdia.
- » Uztailearen 13an, Malas Compañías Zirko taldearen *Orsai*, 19:00etan, udaletxeko plazan. Uda Kalean Bizi jaialdia.
- » Uztailearen 13an, Trastada Teatro taldearen *Un loco de desatar*, 21:00etan, Kurutzia hotelean.

ELORRIO

- » Uztailearen 8an, Tricicle taldearen *Ticket*, 22:30ean, herriko plazan. Musikaire.

AZOKA

ELORRIO

- » Uztailearen 8an, Elorrixa elkarteak antolatutako **Azoka ekologikoa**, herriko plazan.

DANTZA

ELORRIO

- » Uztailearen 13an, Dantzas konpainiaren *Arte-an*, 22:30ean, plazan. Musikaire.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- » Irailera arte, Peru Magdalena eta Gotzon Garaizabalen *2d1* margolanak, Di-da komunikazio enpresaren egoitzan.

DURANGO

- » Uztailearen 8ra arte, Mikel Ibarrolaren *Pasos*, Ezkurdiko udal aretoan. Begira argazki jaialdia.
- » Uztailearen 15era arte, Granadako El Trapiche argazki kolektiboaren *Hexápoda*, Art Leku Galerian. Begira argazki jaialdia.
- » Uztailearen 15era arte, Natacha Marloren *Absoluto*, San Agustín kulturgunean. Begira argazki jaialdia.
- » Uztailearen 15era arte, Laetitia Donvalen *Nerves, Fests & La maison*, Arte eta Historia Museoan. Begira argazki jaialdia.

IKASTAROA

DURANGO

- » Irailaren 15era arte eman daiteke izena Amankomunazgoak antolatzen duen **erretzeari uzteko** ikastaroan: 94 620 05 46 telefono zenbakian edo e-posta bidez: prevencion.mdurango@bizkaia.org.

JAIK

ATXONDO

- » Uztailearen 14an, **Atxondoko I. autokrosa**, 15:30ean, Markoidako landetan.

IURRETA (Arriandi)

- » Uztailearen 10ean, **meza santua**, 19:00etan. Jarraian, **sardinak, goxokiak eta edariak** banatuko dituzte, Azkorako basilizan.

ZALDIBAR

- » Uztailearen 6an, 11:00etatik 13:00etara, **umeentzako parkea**, eskolan. **Durangaldeko eskolarteko V. pilota txapelketaren finala**, 16:30ean, Olazar pilotalekuan. **Eraso sexistarik gabeko jai parekideen alde** murala osatuko dute, 18:00etan, udaletxeko plazan. **Kalejira** Debako elektrotarangarekin, 19:00etan, txosnetan hasita. **Luntxa**, 21:00etan. **Kruders eta Obrint Pas**, 23:00etan, txosnagunean.

- » Uztailearen 7an, 10:30etik 13:00etara, **arku jaurtiketa ume eta nagusientzat**, Arku taldearen galerian. **Tortilla txapelketa**, 12:00etan, eskolan. **Saskibalo partida**, 16:00etan, eskolan. **Herri bazkaria**, 14:30ean, txosnetan. **Eskulanen erakusketak**, 17:00etatik 20:00etara, jubilatuen etxe azpiko lokalean. **Txosnen arteko olimpiadak**, 18:00etan, parkean. **Afari merienda**, 19:00etan, Olea kalean. **Mojito poteoa**, 19:30ean, txosnetan hasita. **Areto dantzen erakustaldia**, 22:30ean, Olazar pilotalekuan. **Triki ta Ke** taldeagaz erromeria, 00:00etan.

- » Uztailearen 8an, **Kalejira**, 11:00etan, Euskal Herriko trikitilari txapelketako txapeldunekin, dultzaineroekin eta **Errotxapeako konpartsarekin**. **Euskal dantzak**, 12:00etan, Zaldua plazan. **Kalejira**, 16:00etatik 18:00etara, Euskal Herriko trikitilari txapelketako txapeldunekin, dultzaineroekin eta **Errotxapeako konpartsarekin**. **Bertsolariak balkoitik balkoira** (Eneko

Abasolo 'Abarkas', Uxue Alberdi eta Iñigo Manzisidor 'Mastis'), 18:00etan, Zaldua plazan.

- » Uztailearen 14an, **Mendi ibilbide neurtua**, 08:00etan Zaldua plazatik irtenda.
- » Uztailearen 15ean, **Meza**, 11:00etan, San Martin ermitan. XXIX. **argazki rallyaren** sari banaketa ekitaldia, 12:30ean, liburutegi zaharrean.

MUSIKA

ABADIÑO

- » Uztailearen 6an, **Mongo eta mongiak**, 20:00etan, Doherties berria tabernan.

DURANGO

- » Uztailearen 6an, **El show de Dodó**, kabareteko musika, 20:00etan, Andra Marin. Uda Kalean Bizi.
- » Uztailearen 6an, **Una noche sin Sabina**, 20:30ean, Kurutzia hotelean.

ELORRIO

- » Uztailearen 6an, **Elliot Murphy**, 22:30ean, Tola jauregian. Musikaire.
- » Uztailearen 7an, **Luisa Sobral**, 22:30ean, Tola jauregian. Musikaire.
- » Uztailearen 12an, **Jago & Sala**, 21:00etan, Portalekua tabernan.

ZINEMA

BERRIZ

- » Uztailearen 6an, **Los vengadores**, 22:15ean, Olakueta plazan.

ELORRIO

- » Uztailearen 12an, **El ambulante**, 22:30ean, Herriko plazan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

The amazing spider-man 3D

Zuzendaria: Marc Webb

barikua 6: 19:00/22:00

zapatua 7: 17:00/19:45/22:30

domeka 8: 17:00/20:00

astelehena 9: 19:00/22:00

martitzena 10: 20:00



Uztailearen 13an, 19:00etan, Durangoko udaletxeko plazan

ORSAI

Uda Kalean Bizi egitarauak ekarrita, Malas Compañías zirku taldearen antzerki eta zirku ikuskizuna izango da uztailearen 13an, 19:00etan, Durangoko udaletxeko plazan. Gorka Gansok zuzendu du lana, eta publiko guztientzat egokitutakoa da. Hiru aktore aritzen dira *Orsai* kale antzezlanean jendaurrean: Mikel Pikaza, Diego Aimar eta Roberto Ferro.

| UZTAILERO AGENDA | | IURRETA ELIZATEKO UDALA |
|------------------|---|-------------------------|
| 7,8,14,15 | IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA 08:00 Hainbat ibilbide (88-125 km) | |
| | SAN ANDRES AUZOKO JAIK. SANTA ISABEL 11:45 Txapliguak. 12:00 Meza Santua. Luntxa. Igel txapelketa | 8 |
| 10 | SAN KRISTOBAL EGUNA AZKORRAKO BASELIZAN 19:00 Meza Santua. Ondoren sardinak, gozokiak eta edariak | |
| | MENDIKO IBILBIDEAK. Sellatik kanoa jaitsiera | 13-15 |
| 14 | AMOIUR IURRETAKO MOTORZALEEN ELKARTEA 10:15 Iurreta - Alto de Otzaurte - Iurreta | |
| ARRIANDIKO JAIK | | 14-18 |
| 14an, | Amezketak eskolan: 18:00 Asto probak. 21:00 Afari herrikoa | |
| 15ean, | Santa Mañako basilizan: 11:30 Meza. Jarraian tortillak, karramarroak, gozokiak, edariak Santa Mañako XXXV. Tortilla txapelketa (10€ bikotea) Santa Mañako XXVIII. Igel Txapelketa (3€ bikotea) Amezketak eskolan: 18:00 XLIV. Briska txapelketa (6€). 18:30 Ponyak eta jolasak | |
| 18 | ODOL EMATEA. 16:00-20:00 Txonpolo Elkartearen | |
| | IURRETAKO UDALA. 09:00 Iurretako Kale Azoka | 19 |

DENBORAPASAK

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko 14:00ak arteko epea

| | | | | | |
|----------------------|------------------|---|--------------------|--------------------|------------------|
| | Oxidatze | ▼ | Nafarroako urtegia | ▼ | Azalera unitatea |
| | Basobera | | Espartina | | |
| | | | | | |
| | Haran | ▶ | | | |
| | Makurtua | | | | |
| * Bizkaiko mendia | Basaburuko auzoa | ▶ | | | |
| Talkan aritzen da | Daratuluak | | | | |
| | | | | | |
| Laguntza | | | | | Gorua, kiloa |
| Handia | | | | | |
| | | | | 50 | ▶ |
| | | | | Ezagutzen sintesia | ▼ |
| ...Grosso, Brasilen | | | | Titanioa | ▶ |
| Asturu | | | | Hodei mota | ▼ |
| | | | (Infin.) Kendu | ▶ | |
| | | | Dut, hari | | |
| Animalien presondegi | Elementu kimikoa | ▶ | | | |
| | Herri nafarra | | | | |
| | | | Barre | ▶ | |
| | | | Musika nota | | |
| Bero unitatea | | ▼ | | | |
| Jokoan ipiniak | | | | | |
| | | | | | |



Ongi etorri ekainaren 30ean mundura heldu zen **Oihan Antxiari!** Zorionak aita, ama eta izar! la ikusten garen. Musu pila!



Anek 4 urte bete ditu uztailaren 3an. Zorionak laztana! Musu potolo eta besarkada handi bat danon partez! Maite zaitugu!



Xikerrek gaur bere lehen urtetxoa bete du. Zorionak mutikote! Txiki txiki txikia... Hasi naiz handitzen... Maite zaitugu!



Bihar, San Fermin Egunean, aitita eta amamak 50 urte beteko dituzte ezkontuta. Jarraitu horrela. Musu handi bat Andoni eta Maialenen partez!



Zorionak **Nahia!** Ostegunean zure lehen urtebetzea izan zen eta familia osoarekin ospatu genuen. Musu bat gure etxeko printzesa txikiari!



Zorionak amama **Karmenxuri** eta **Irati** sorgintxuari! Musu potolo bat eta jarraitu zuen irribarre polit horrekin. Asko maite zaituztegu! Paula, amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak **Ainaraxo!** Uztailaren 9an urtebete egingo duzulako. Musu handi bat guraso, osaba-izeben, amama-aiten eta lehengusuen partez!



Zorionak Mañariko dantza talde langileenari eta eskerrik asko hor egoteagatik. Onenak zarie!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 88 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Hamabostero, jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Parte hartzeko bidali kontakturako datuak.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|-----|
| | | 3 | 8 | | 1 |
| 2 | | | | | 6 7 |
| | 6 | 3 | 5 | | |
| 7 | | | | | 8 |
| | 4 | 9 | 3 | | |
| 5 | | | | | 3 |
| 4 | 3 | 2 | | | 8 |
| | | 1 | 9 | | 4 |
| | | | | 2 | 9 6 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | 3 | 7 | | |
| | | | | | 4 |
| 3 | | | 5 | | |
| 1 | | 8 | | 4 | |
| | | | 3 | 2 | |
| | 2 | 7 | | 1 | 3 |
| | | 2 | 1 | 8 | |
| | | | | | 7 |
| 5 | 6 | 2 | | | |

BOTIKAK >

- Barikua, 6**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
- Zapatua, 7**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-13:30
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo 4 - Abadiño)
- Domeka, 8**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- Astelehena, 9**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- Martitzena, 10**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Eguaztena, 11**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Eguena, 12**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....670 409 330
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA >** ☁ ☔ ☀ ☁ ☔ ☁ ☔
- 23° BARIKUA** ☁
26° ZAPATUA ☀
24° DOMEKA ☁
22° ASTELEHENA ☁
22° MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro
Porruak..... 1,80 euro/tx
Kalabaza..... 2,20 euro/kg
Azenarioak..... 1,50 euro/tx
Azalgak..... 2 euro/kg
Bruselazak..... 3 euro/kg
Espinakak..... 1,50 euro/tx
Indabak..... 15 euro/kg
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
Espeltazko ogia..... 3,60 euro

SOLUZIOAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 9 | 3 | 8 | 7 | 1 |
| 5 | 1 | 7 | 3 | 4 | 8 |
| 2 | 7 | 4 | 6 | 1 | 8 |
| 4 | 3 | 2 | 7 | 6 | 3 |
| 8 | 6 | 4 | 9 | 2 | 7 |
| 3 | 7 | 2 | 5 | 6 | 4 |
| 1 | 4 | 7 | 3 | 5 | 8 |
| 2 | 8 | 5 | 4 | 9 | 1 |
| 7 | 6 | 3 | 8 | 2 | 4 |
| 5 | 1 | 7 | 3 | 4 | 8 |
| 4 | 5 | 6 | 2 | 7 | 1 |
| 3 | 2 | 7 | 4 | 9 | 5 |
| 8 | 6 | 3 | 1 | 2 | 7 |
| 1 | 4 | 7 | 3 | 5 | 8 |
| 2 | 8 | 5 | 4 | 9 | 1 |
| 7 | 6 | 3 | 8 | 2 | 4 |
| 5 | 1 | 7 | 3 | 4 | 8 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | V | U | L | V | K | O | R |
| V | I | R | O | T | V | K | • |
| I | R | R | I | • | O | O | Z |
| V | O | I | D | V | R | • | • |
| N | E | K | • | U | L | V | P |
| I | T | • | O | T | V | M | • |
| L | • | V | I | R | R | V | L |
| • | V | K | Z | U | V | L | • |
| V | I | R | V | K | L | V | L |
| E | B | V | D | U | • | Z | • |
| R | A | R | I | B | I | • | • |
| V | A | R | A | X | T | • | • |
| • | I | • | O | • | • | • | • |

"30 urte telebistarako bikoizten, eta ez daukat telebistarik etxean"

Kantutik kontura, ahotsa izan du ogibide 'Xeberrik': Araban Bagare kantatu, Robert Refordi ahotsa bikoiztu...

Sarrian, antzina errota izan zen baserrian giro bake-tsua topatu du Xabier Castillo Miota *Xeberrik*. Erreka hotsa entzuten da historia askoko etxearen atartearen. Bizkaiko lehen paper fabrika egon zen bertan. 70eko hamarkadan kantagintzan eta geroago bikoizketan murgilduta egon da *Xeberri*. Pozik erakusten ditu bere etxeke bazterrak.

Zelan topatu zenuen txoko berezi hau?

Gurasoak baserriarrak ziren, eta senak bidalita-edo, abesten nabilenean baserri bila hasi nintzen. Hona heldu nintzenean udaberria zen, birigarroak abesten, ura nonahi, eta esan nuen: hau da nire tokia. Etxe berezia da, errota izandakoa, eta bertan egon zen Bizkaiko lehen paper fabrika, 1.788 inguruan. Garai haieran arropagaz egiten zuten papera.

Kantagintzako sasoiak aipatu dituzu. Noiz hasi zinen abesten?

Gasteizen hasi nintzen, han ikasten nengoela, 1970ean. Amets izeneko taldea sortu genuen bost lagunek, gitarra elektrikoekin, euskaraz abesten. Hori Araban eta urte horietan oso gauza berria zen.

Bakarkako disko bat ere grabatu zenuen...

Deustura etorri nintzen ikastera, eta bazegoen Portugaleten El Abra jaialdia, lehiaketa. Estitxuk eta Natxo de Felipek-eta irabazi zuten saria jaialdi horretan, eta ni ere aurkeztu nintzen, eta irabazi nuen. Saria disko bat izan zen. 1973an grabatu nuen; Iparragirreraren letrekin egindako lehen diskoa izan zen.

Gontzal Mendibilegaz bikotea osatu zenuen.

Saria irabazi eta hurrengo urtean Gontzalek irabazi zuen. Ni gonbidatuta egon nintzen, eta hantxe ezagutu genuen elkar. Duoa egin eta kontzertu asko eman geni-

tuen, oso famatuak izan ginen. *Zaurietatik dario* diska atera genuen eta han hainbat abesti: Araban Bagare, Laster-laster, General Mola... Oso intentsoa izan zen. Momentua ere halakoa zen; Frankismoa jaustear, eta bultzatu egin behar zen hori.

Oso ezagunak bihurtu dira zuon kantak. Zapatuan Kriskitinen 25. urteurrena aurkeztu nuen Durangon, eta gero parte zaharrean trago

bat hartzen nengoela, gazte talde batek, ni ezagutu-edo, eta euren artetik pasatzerakoan Araban Bagare abesten hasi ziren. Ni ere hasi nintzen eurekin. Politu da hori.

Euskal Herriko Lur Maitia kontzertuetan parte hartu duzu. Zelako esperientzia izan da?

Niko Etxart, Gorka Knörr, Urko, Gontzal Mendibil... Euskaldun abestu genuen, Kur-saalen, Durangon ere bai... Eta aretoak beteta! Denekin, oso-oso ondo.

Gontzal eta biok

arinago ezer entseatu barik joan ginen Donostiara, lehen entsegura. Hasi ginen abesten, eta lehen bezala! Denak harrituta gelditu ziren. Esan didate deituko didatela beste zertxobait egiteko, eta ni gustura.

Denbora luzez albo batera utzi duzu kantagintza, eta bikoizketan jardun duzu.

Mundu horretan murgilduta egin ditut 30 urte. Orain ez dago dirurik, lan berria gutxitzen ari da.

Bikoiztutakoan artean, badaukazu pertsonaia berezirik gogoan?

Baneukan zerrenda bat, baina galdu egin dut... Ehundaka lan izan dira! Lehenetarikoa *El Evangelio según San Mateo*, Pasolinirena, lau orduko pelikula. Jesusi ipini nion ahotsa. Galai gaztearen paperak egin ditut, eta marrazki bizidunetan ere asko ibili naiz. Pertsonaia guztiz desberdinak egin ditut: Garfieldi neuk egin nion, Robert Refordi, Antonio Banderasi, Dragoi Bolan Yamcha nintzen, eta hasierako Dragoi Bolan abestu egin nuen...

Aktorea izan zara azken finean.

Ahotsarekin interpretatu egiten dugu. Ahotsa aldatzeko trebezia eduki behar da: bolumena, ahotsa apurtzea, faltseteak... Faltsete asko egin ditut. Laupabost gama izateakomeni da, goiko eta beheko tonuetan, pertsonaia bakoi-tzari ahots gama bat emateko. Bost minutuko zati edo *take*-etan egiten dira bikoizketak. Minutu horietan oso kontzentratuta egoten zara; zortzi orduz horrela, oso kantsatuta amaitzen nuen.

Bikoiztu ostean, gero filmak ikusteko gogorik bai?

Nikez! 30 urte telebistarako lanean, eta ez daukat telebistarik etxean; ez daukat ezta beharrik ere. Irratia entzuten dut eta Internet erabiltzen dut mundua zelán dabilen jakiteko.



Xabier Castillo Miota, "Xeberri"

Durangarra, Sarrian bizi da

30 urtez bikoizketan ibili ostean, iaz jubilatu zen

Juanito Gallastegi Abadea



Berba baten esangurak

Hizkuntza gehienetan jazoten da berba berak esangura bat baino gehiago izatea. Gaztelaniak holako asko ere asko ditu. Ez da gauza bera hurbil egotea esan gura dauen *cerca* eta itxitura adierazoten dauen *cerca*. Ez da gauza bera ezkontzea adierazoten dauen *casa* eta *etxea* esan gura dauen berba bera. Eta holako ugari jarri geinkez. Euskereak ere badi-tu esangura bakarra ez daben berba ugari. Jolaserako eta irribarre egiteko erabili daitezke batzuetan.

Emon berbea da euskeraz esangura bakarra ez dauan beste bat

Bizkaierazko *itxi* beste euskalkietako eta batuerako *itxi* izan daiteke, baina baita *utzi* ere. Peru eta Maria ez ei ziren ondo konpontzen. Mariak "egizu hau" esan ezkerro, Peruk guztiz kontrakoa. Eta gauza bera jazoten ei zen Peruk Mariari zeozer agindu ezkerro. "Peru, itxi atea" agindu ei eutsan Mariak eta Peruk zer egingo eban ba, atea bertan itxi (utzi) barik, lepoan hartu baino. Etxea kanpoko ate barik geratu ei zen.

Behin, Iparraldeko lagun bati hango beste bati mesede bat eskatzeko esan neutsan. "Ez, baina, samurtu egingen zauku". Nik, orduan: "Ba, samurtzen bajaku, errazago emongo deusku eskatzen deusaguna". Azkenean ohartu nintzen, *samurtu* berbeak ez eukala han hemengo esangurea. *Hasarratzea* zan *samurtzea*.

Emon berbea da euskeraz esangura bakarra ez dauan beste bat. Lehengo egun baten, "Zenbat urte daukazu?" itaundu eutsoen bati. "Laster laurogei egiteko". "Ene! Ez dozuz emoten!". "Ez ba, emongo banitu ez neukez horrenbeste eukiko, gitxiago baino!".

anbotoko argazki lehiaketa 2013



12 hile herri

oinarriak: www.anboto.org-n